ASTELEHENEKO
Goienkaria

2008ko ekainaren 2a > Astelehena > VI. urtea > 192. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Sukaldean berritzen dela argi dago; klasikoek eta berritzaileek egiten dugu"

Alberto Elortza eta Koldo Lasa
Sukaldariak > 6

G2a El Puchero del Hortelano: rocka eta flamenkoa > 23

ARETXABALETA Lore Leanizbarrutia EAJko senatariari elkarrizketa > 05

KIROLA Leintz bailarako gaztetxoek Eskola Kiroleko jaia ospatu zuten > 21

KULTURA Amaia Cid aktore oñatiarra, jaioterrian 'Figaro' aurkezten > 24

EGURALDIA > MAIATZA

240 euri litro jaso ditugu

Aurtengo maiatzean iazkoan baino 109 litro gehiago izan ditugu ibarrean > 04

TURISMOA > OÑATI

Arrikrutz beste zenbait kobazulorekin anaitu da

Arrikrutzeko koba Euskal Herriko beste hainbat kobazulorekin anaitu da, lur azpiko altxorrak ezagutzera emateko. Oñatiko kobaren lehen urteurrena betetzen denean, balorazio positiboa egin dute arduradunek: 25.000 bisitari izatera iritsiko dira lehen urteurrenerako. Bisitari gehien, udan izaten dira. > 02

BAZKARIA Iturrigorri pilotalekuan jai giroa izan zen nagusi Atzegi egunean, zapatu eguerdian. JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE > UDALA

Talde mistoa sortu dute

Orain arte EAEko zinegotziak izan direnak hartzeko > 10

ARETXABALETA > ATZEGI EGUNA

Atzegi egunean 140 lagun elkartu ziren

PRESIDENTEA Josean Idoeta Atzegiko presidentea Aretxabaletan egon zen zapatuko jaian

BAZKARIA Iturrigorri pilotalekuan egin zuten bazkaria; ondoren musika izan zuten > 09

KIROLA > ERRUGBIA

Patrice Lagisquet, Mojategin

Biarritz Olympique-ko entrenatzailearekin saio berezia > 19

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Sailkatuak > 28
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

AURKEZPENA Virginia Elgea, Pozalaguako ordezkaria; Ikerne Altube Arrikrutzekoa eta Ainhoa Agirre Zugarramurdiko Sorginen Leizekoak aurkeztu dute proiektua Arrikrutzen. IRATI AGIRREAZALDEGI

AISIALDIA > LUR AZPIKO TURISMOA

Mugarik gabe lurpean ibiltzeko sei aukera bateratu dituzte

KOBAK ETA LEIZEAK Sorginen Leizeak, Ikaburukoak, Sarakoak, Pozalaguakoak, Mendukilok eta Arrikrutzeko kobek bat egin dute proiektu batean

ZIGILUAK Bisitariei informazio liburuxka banatuko diete lehenengo koban eta zigilua ipinita beherapenak izango dituzte gainontzeko kobetan

KOBA GEHIAGO Sustapena bultzatzea da bat egiteko helburuetariko bat eta Otsozelaiako eta Isturitzeko kobak ere sar litezke proiektuan etorkizunean

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Kobazuloak eta leizeak, lur azpiko altxorren gordailuak dira. Altxor batzuk, ordea, ez daude sekretupean gordetzeko eta jendearen eskura ipini dituzte. Horietako bat da Oñatiko Arrikrutzeko koba. Euskal Herriko beste hainbat kobazulorekin anaitu da eta proiektu bateratua sortu dute lur azpiko altxorrok bisitariei ezagutarazteko.

Kantauriko mendikatea eta Pirinio atlantikoko paisaia kareharriz osatutako mendi guneek, leizeek, hobiek, eta isurbide karstikoek osatzen dute hasi Bizkaitik eta Gipuzkoako eta Nafarro-

SEI KOBAZULO ETA LEIZE AUKERAN

Arrikrutz / Oñati
www.oinati.org / 943 08 20 00

Aizkorriren magalean dago espeleologia, arkeologia eta paleontologia azterketetan aitzindari izandako koba. Barruan ikus daiteke azalpen landuen bidez, nola zizelatu duen urak haitzuloa, Gesaltza-Arrikrutzeko karst sistema, lurrazpiko erreka eta estalaktitaz betetako galeria eta aurkikuntza arkeologikoak eta paleontologikoak.

Mendukilo / Astitz
www.mendukilo.com / 948 39 60 95

Mendetan barrena mendiko ukuilu moduan erabili ostean, 2005ean bisitak jasotzeko gertatu zuten. Artzainzulo, Laminosin eta Herensugeen Gotorlekua guneak daude bere baitan eta udazkenean eta neguan uraren presentzia nabarmena da. Bisita errazteko zaldain flotakorrez, argiztapen bereziz eta multimedia sistemaz hornituta dago leizea.

Pozalagua / Karrantza
www.karranza.com / 649 81 16 73

Karrantzako bailaran kokatua dago eta balio handia du espeleologiari dagokionez batez ere estalaktita eszentrikoengatik. Grabitatearen legearekin erronkan elkarri lotzen direnak dira horiek eta Versalles gelan aurki daitezke gehien. Koba pasabide metalikoekin egokitua dago. Pozalaguan, kobaren kanpo aldean, auditorioa inauguratuko dute uztailean.

ako iparraldea igarota Lapurdiraino. Inguru horietan dauden sei koba eta Leizek egin dute bat, hain zuzen ere, proiektu horretan: Gipuzkoan Oñatiko Arrikrutzek, Bizkaian Karrantzako Pozalaguak, Nafarroan Urdazubiko Ikaburuk, Astitzeko Mendukilok eta Zugarramurdiko Sorginen Leizeak eta Lapurdin , Sarako leizeak.

Erakargarriak dira leizeak ez ezik hauen inguruak duten balio ekologiko eta natura ezaugarriengatik, eta horiek gerturatu nahi dizkiete, hain zuzen ere, koben arduradunek turistei. Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako Ikerne Altubek esan digu: "Guk nahi duguna da lur azpiko turismoa bultzatzea badagoelako publiko bat gai horretan interesa duena. Beste herrialde batzutan turismo mota honek badu indarra; Frantziak, esaterako, hiru milioi bisitari ditu".

ELKARLANA, EZ KONPETENTZIA

Nahi dutena da Euskal Herrian proiektu bateratua bultzatzea. "Turismo arloan arraroa dirudien arren, gu ez gara elkarren aurkari. Kobazulo bakoitza mundu bat da eta bakoitzak bere historia du. Sarakoak eta Zugarramurdikoak alde historikoa eta mitologikoa dute; Arrikrutzek alde paleontologikoa; Pozalaguako estalaktitak eta estalagmitak garrantzitsuak dira; eta Mendukilo eta Ikaburu espeleologiari dagokionez. Ezberdinak dira elkarren artean, baina talde bat osa dezakete eta talde moduan lan egiteko indarra batu nahi dugu", dio Ikerne Altubek.

Koba guztien artean urtean 300.000 bisitari jasotzen dituzte eta horrek erakusten du badagoela publiko bat horrelako errekurtsoetan interesa duena. "Ez bakarrik leizeak, baizik eta normalean kobak kokatuta dauden inguruneak, mendi inguru goxoak, jende mota zehatz bat erakartzen du. Ez dute zerikusirik eguzkia eta hondartza bateratzen dituen turismoarekin, baina bada jendea bestelako oporrak nahi dituena", esan digu Ikerne Altubek.

"Lur azpiko turismoa bultzatu nahi dugu badagoelako publiko bat interesa duena"

"Liburuxkaren bidez informazioa emateaz gain, bisitaririk fidelenak saritu nahi ditugu deskontuekin"

LIBURUXKA

Sei kobetako arduradunek *Mugarik Gabeko Lurpea* ekimena ipini zuten abian 2007an eta helburua da lur azpiko bisitaria natura, ekologia, historia eta mitologia moduko baliabideetara gerturatzea; alboan izan arren ezezagunak baitzaizkigu.

Proiektuaren bidez baliatu nahi dira leize eta koba bakoitzeko bisitariak gainontzeko lur azpiko altxorren onurarako. "Nahi dugu koba bat bisitatzera datorrenak jakitea beste batzuk bisitatzeko erraztasunak izango dituela, eta horretarako informazioa emango zaio. Bide batez koba bat baino gehiago bisitatzen dituztenak saritu nahi ditugu deskontuen bidez, eta fidelenak opari batekin", azaldu digu Altubek.

Liburuxkak kaleratu dituzte, 40.000 guztira, eta bisitariak horren bidez gonbidatzen dituzte beste kobak eta leizeak ezagutzera. Bisitatzen duten lehen koban liburuxka zigilu batekin markatu eta hortik aurrera beste kobetan aurkeztean tarifa arruntaren %20ko beherapena izango dute. Seiak bisitatu eta guztien zigilua lortutakoan oparia emango diete. Leizeen irudiz eta soinuz osatutako DVDa kobetako esperientziak berriz bizitzeko.

Proiektua orain dela urtebete inguru abiarazi arren, gorabehera asko izan da liburuxkak banatzeko. "Guztiak banatuak daude, baina Saran uholdeak izan ziren joan zen urteko maiatzean eta urtarrilera bitartean kobazuloa itxia izan zen; Zugarramurdin koben kudeaketa aldaketa abenduan egin zen eta ordura arte ez zaio aparteko garrantzirik eman liburuen banaketari eta zigilua ere ez zuten ematen. Hortaz, hemendik aurrera denak abian daudela gogoz helduko diogu proiektuari", azaldu zuen Zugarramurdiko Leizeko ordezkari Ainhoa Agirrek.

ETORKIZUNEKO ASMOAK

Proiektua abiarazi zutela urtebete beteko da ekainaren 30ean. Turismo eta Garapen Agentziako Ikerne Altuberen esanetan, "abiapuntua da, jakin badakigu gauzak badaudela hobetzeko eta aurrera egin nahi dugu. Momentuz hitzarmen bat sinatu nahi dugu kobazuloen artean eta etorkizunean funtzionamendu eta antolaketarako zutabeak eraikitzea da gure helburua eta mugaz gaindiko elkartea sortzea".

Ainhoa Agirrek azaldu zuenez, "lehen pausoak sustapenari dagozkio, informazioa hedatu nahi dugu ahalik eta modu gehienetan, besteak beste koba bakoitzaren webgunetik besteenetara loturak egitea da gure asmoa ".

Aurrerantzean ateak zabalik utziko dituzte Pirinioetatik hasi eta Kantabriara arteko kobazuloak proiektuan sartzeko eta elkarlanean jarduteko. "Isturitzeko eta Otsozelaiako kobek taldean sartzeko interesa azaldu dute eta Kantabriako kobaren bat ere sar liteke aurrerantzean beharbada. Oraingoz Euskal Herriko hainbat koba hasi gara proiektua lantzen eta aurrerago ikusiko da", dio Ainhoa Agirrek.

Lur azpiko parajeak azalera ekarriz gonbitea egin diete herritar guztiei kobetan eta leizeetan gordetako altxorrak ezagutzeko.

SEI KOBAZULO ETA LEIZE AUKERAN

Sarako Lezeak / Sara
www.sarakolezeak.com / 0033 559 542 188

Tradizio gehien duen kobazuloa da, kondaira eta euskal ipuin askoren jatorria; aurre-historiatik gaur egunera arte bizirik daudenak. Joxe Migel Barandiaran antropologoaren ikerlanetan oinarrituz bidaia egin daiteke lezean barrena sarrerako ate harrigarritik igaro eta bihurgune handian gora historiaurreko bizilekuan barneratuz.

Ikaburu / Urdax
www.cuevasurdax.com / 948 59 93 41

Koba honen barnera, lurpeko zainetara sartu beharra dago formazio kalkarikoak ikusteko. Naturak ur tanten iraupenari forma berezia eman baitie. Urtxumeko ubide txikia leizea sortzen joan da mendez mende eta kobaren eta honek bere baitan gordetzen duen ubidearen historia ezagutzeko aukera ematen dute bisita gidatuetan.

Sorginen Leizea / Zugarramurdi
948 59 93 05

Azaleko egitura karstikoa da eta kobazulo nagusiena infernuko errekaren ur emariak sortua da. 120 metroko luzeera, 26 eta 12 metro arteko zabalera eta 10-12 metroko altuera ditu. Bertara herri gunetik iristeko ibilbide polita dago. Zugarramurdiko leizeak Inkisizio garaian han egindako sorginkeria eta ospakizun paganoengatik dira sonatuak.

ARRIKRUTZEK URTEBETE

Iaz, ekainaren 9an zabaldu zituzten Arrikrutzeko kobak. GOIENKARIA

Arrikrutzeko kobetatik 25.000 bisitari pasako dira lehenengo urte betetzerako

Ekainaren 9an beteko da urtebete Arrikrutz zabaldu zenetik eta balorazio positiboa egin dute arduradunek. "Lehen urtea izan da eta Gipuzkoan modu honetan zabaldu den lehen koba ere bada. Aztertzen dihardugu jendea nondik etorri den, zein iradokizun egin duen... aurrerantzean beste pausu batzuk emateko", esan digu Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako Ikerne Altubek .

Urteurrenean 24.500-25.000 bisitarira iritsiko direla uste dute. Horietatik 1.000 inguru oñatiarrak izan dira eta Debagoiendarrak 2.000. Gainontzekoen kontaketa zehatzik egin ez badute ere jende asko Donostialdetik datorrela sumatu dute. Bisitari gehien aste bukaeretan eta udan izan dira. "Kontuan hartu behar da ikastetxeetatik etorri dela jendea baina ez garela zuzenean eurengana iritsi. Izan ere, irteeren programazioa aurrez gertatua zuten eta gero ipini ginen eurekin harremanetan; hortaz, aurten ikastetxeen gaia indartu nahi dugu", dio Altubek.

Elkarlana ere azpimarratu dute arduradunek: "Ostatuetan gomendioa jasota etorri da bisitari asko eta baita turismo bulegoetatik ere, ez ingurukoak bakarrik baita kostaldekoeetatik ere". Gehienek komunikabideen bidez izan dute Arrikrutzen berri (%26); Gomendatuta %25 izan da kobeten. "Guretzat datu ona da ahoz aho informazioa zabaltzea. Sustapeneko makromerkatuan horrek du balio gehien Oñati munduan gunetxo bat baino ez delako", dio Ikerne Altubek; Oñatiko turismo bulegotik %15 joan da eta informazioa Internet bidez jasota %14. Horrela, bisitariak askotarikoak izan dituztela esan digute: mendi taldeetako jendea, guraso elkarteetakoa, lagun taldeak, enpresetakoak...

BALORAZIO OSO ONA BISITARIEK

Bisitariek inkesta bete dute eta horren arabera jaso dute Arrikrutzen gaineko iritzia. Aztertu dituzte errepideko seinaleak, gidaria, gidoia, argiztapena, soinua, iraupena... eta ondo edo oso ondo baloratu dituzte.

Hobetzeko eskariak egin dituenik ere izan da: Animalia gehiago, koba barruan denbora gehiago pasatzea... Ikerne Altuberen esanetan, "bisita luzeagoak nahi lituzkete, baina mugak ditugu, denbora tarte batetik pasatzen denean horrelako toki itxi batean eta taldean, klaustrofobia arriskua egon daitezkeelako nahiz eta jendeak hala ez uste".

Hala ere, badira asmoak hobekuntzarako: "Bisitak aberastu nahi ditugu gidarien formazioa hobetuz; eskaintza zabaldu beste bisita mota batzuri, eskolei, esaterako; bisiten iraupena eta gidoia moldatu bisitarien arabera... Aurreikusten da soinu eta argiztapenarekin bakarrik egitea bisita. Oinarrizko bisita mantenduko dugu, talde handiendako bisitak egokitu eta hirugarrenik soinu eta argiztapenaz baliatuta bisita pertsonalizatua litzateke: umeendako, adinekoendako... ", esan digu Altubek.

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
K21
Arotz lanak orokorrean
•
Horma armairuak
•
Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

EGURALDIA > MAIATZA HILABETE EURITSUA IZAN DA

240,8 litro bota ditu ibarrean maiatzean eta egun euritsuena hilaren 23a izan zen

Maiatzeko azkeneko 10 egunak izan dira euritsuenak; maiatzaren 21 eta 31 bitartean 165 litro euri egin zituen metro koadroko

UHOLDEAK Aretxabaletan uholdeak izan ziren joan den domekan. ANGEL ZUBILLAGA

ARRITXU BARRUSO> ARRASATE

Aterkia ezinbesteko laguna izan dugu bukatu berri den hilabetean. Maiatzean euria izan da, duda barik, protagonista nagusia. Maiatzean, gutxiago edo gehiago, 23 egunetan egin du euria. Guztira 240,8 litro euri egin ditu metro koadroko gure ibarrean.

Maiatzeko azkeneko hamar egunak izan dira euritsuenak. Hilaren 1etik 10era 54,4 litro bota zituen; 11tik 20ra bitartean, berriz, 22,4 litro, eta maiatzaren 21etik 31ra 165 litro metro koadroko.

Maiatzaren 23a izan zen hilabete osoan euri gehien egin zuen eguna (30,7 l/m^2). Aste bukaera gogorra izan zen hura; Aretxabaletan, esaterako, uholdeak izan zituzten. Joan den urteko datuekin alderatuz, euri gehiago egin du aurten, 109 litro gehiago hain zuzen. 2007an 131 litro egin zituen. Luis Mari Agirre bergararrak emandako datuak dira hauek guztiak. Bere esanetan euri asko egin duen arren, ez da horrenbesterako izan. Luis Mari Agirrek adierazi digunez azken 25 urteetako maiatzik euritsuena 1991koa izan zen. Orduan 279 litro euri jaso genituen bailaran. Maiatzean, beraz, badaki euria egiten; 1985ean 256 litro egin zituen eta 1984an, berriz, 224 litro.

Baserrietako baratzetan, baina, kalte handiak eragin ditu azken egunotako eguraldiak. Dagoeneko hazita zeuden tomateei, piperrei eta letxugei kalte handia eragin die azken egunotako kazkabarrak eta euriak.

10 hilabete euritsuenak

Hilabetea	litro/m^2
1992ko urria	547
1986ko urtarrila	375
2008ko martxoa	360
1996ko otsaila	352
1996ko azaroa	346
1983ko abuztua	336
2002ko abendua	318
2005ko azaroa	313
1984ko urtarrila	311
1989ko apirila	308

Iturria: Luis Mari Agirre (Narbaiza Bolu baserria)

VI. ZERNOLA OLINPIADA > SARI BANAKETA ARRASATEKO GARAIA BERRIKUNTZA GUNEAN

Arrasateko Arizmendi ikastolako ikasleek bosgarren postua lortu dute

Euskal Herriko 1.200 ikasle inguruk hartu dute parte Zernola Olinpiadaren seigarren edizioan

Zientzia eta teknologia berriekin lotutako probak egin dituzte ikasleek hilero-hilero

ZERNOLA OLINPIADA Garaia Berrikuntza Gunean banatu zituzten sariak. T. MADINA

TXOMIN MADINA> ARRASATE

Elhuyar Fundazioak sarean daukan *www.zernola.net* atariaren bitartez, VI. Zernola Olinpiada ipini zuen martxan urrian. Guztira Euskal Herriko 41 ikasgela aritu dira lehian ikasturte guztian zehar. Hilero zientzia eta teknologiarekin zerikusia zuten probak gainditu behar izan dituzte. Sariak ere jaso dituzte hilero-hilero, eta olinpiadaren amaieran puntuazio altuena lortu duten hiru taldeei sariak banatu dizkiete. Sari banaketa ekitaldia egubakoitzean egin zuten Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean.

Elhuyar Fundazioak olinpiada honekin gaztetxoak zientzia eta teknologia berrien mundura hurbiltzea lortu nahi ditu. Lan taldea indartu nahi dute modu horretan, eta era berean, Euskal Herri mailako gazte sarea sortu.

Arrasateko Arizmendi ikastolako DBHko lehenengo mailako ikasleek bosgarren postua eskuratu dute. Saririk eskuratu ez duten arren, olinpiadetan parte hartzea asko gustatu zaiela esan dute. Zientzia klaseetan baino, olinpiadetan gehiago eta gusturago ikasi dutela esan dute gazte arrasatearrek; ez daukate zalantzarik horretan.

Zernola Olinpiadaren seigarren edizio honetan Gasteizko Jesus Obrero ikastetxekoek eraman dute sari nagusia. Gelako guztiendako bi eguneko egonaldi bat jasoko dute Zuatzako uhartean. Bigarren saria Bermeoko Eleizalde ikastetxekoek eroan dute, eta hirugarren saria Donostiako Axular lizeokoendako izan da. Sari banaketa ekitaldian Maisha abeslariak, Samu Crew break dance taldeak, Aritz Sound Systemek eta Luxor graffitilariak hartu zuten parte. Musika eta dantza giroan jaso zituzten, beraz, sariak.

> EKONOMIA

Irizar enpresak Mondragon Taldetik irtetea erabaki du

Ampo enpresak egin bezala, Ormaiztegiko Irizar enpresak ere Mondragon Taldetik irteteko erabakia hartu du. Eguenean egindako urteko batzarrean langileen %75ak Mondragonetik irteteko erabakia babestu zuen. Kudeaketa eredua izan da taldea uzteko arrazoietako bat. Irizarretik esan dute azken 17 urtetan kudeaketa eredu propioa garatu dutela.

> ARRASATE

AEDren urteurreneko erakusketa Kulturaten

Egubakoitzean, AEDren 25. urteurreneko ekitaldiei hasiera emanez, erakusketa zabaldu zuten Arrasateko Kulturaten.

Euskara elkarteen izaera, funtzioa, eginkizuna eta dinamika azaltzeko helburuarekin zabaldu dute erakusketa. Era berean, AED elkarteari buruzko datuak jarri dituzte ikusgai, hainbat paneletan.

Kulturateko erakusketa ekainaren 15era arte izango da zabalik.

Lore Leanizbarrutia > EAJko senataria

"Estatu autonomiko izaten segi ala jauzia emateko aukera dugu"

EDU MENDIBIL > ARETXABALETA

Lore Leanizbarrutia (Aretxabaleta, 1956) Debagoieneko politikari bakarra da Madrilen. EAJk dituen lau senatarietako bat dugu. Zuzenbidean lizentziaduna, nazioarteko merkataritzan, urte askotan irakaskuntzan jardundakoa da. Zapatuan gaurkotasunezko hainbat gairen gainean jardun zuen Aretxabaletako Batzokian.

Lore Leanizbarrutia zapatuan Aretxabaletan. Gaur egun Donostian bizi da. J.ARANTZABAL

Madrilen egotea ezinbestekoa dela esan ondoren, Senatuaren lana azaldu duzu hitzaldian.

Kongresuan onartzen dituzten legeak *fintzeko* Senatuak ia-ia urregintza lana egiten duela esan daiteke. Legeen hitzak edo izpiritua lantzen ditugu eta bestalde hainbat gaietan ate politikoak itxita izan arren, harreman pertsonalen bitartez zabaldu daitezke. Praxiaren, praktikotasunaren ikuspuntutik Madrilen egon behar dugu, are gehiago Europako alderdi zaharrenetarikoa garen aldetik. EAJk estatu mailako politikariak izan ditu historian (Irujo, Landaburu, Agirre...) eta haiek egindako lanari eutsi behar diogu.

Gaur egun, estatu zentralistek (Espainia, Frantzia...) konpetentziak galdu dituzte, Bruselak hainbat eskudun eskuratu dituelako. Zer gertatzen da? Estatuek ez dute boterea galdu nahi eta tentazioak izaten dituzte behean dutenei boterea kentzeko. Hori dela eta han egotea ezinbestekoa da, dagokiguna aldarrikatu eta eskuratzeko.

Madrilen demokraziari dioten beldurra salatu duzu.

Horrela da. Espainiako estatuak defizit demokratiko handia dauka. Alderdien legeak hitza kentzen dio Euskal Herriko biztanleriaren zati inportante bati eta salbuespen egoera batean gaudela esan genezake. Lehengoan sozialistekin haserretu nintzen; gizarte gaiak interesatzen zaizkiela batik bat diote. Gezurra da, gerra ekarri dutelako Euskal Herriko udaletxeetara. Eta egoera hori hemen sufritu beharra daukagu, legez kanporatutakoek inolako deliturik egin dutela frogatu gabe. Espainia ez da estatu demokratikoa eta kontsensua ez da demokraziaren oinarria, gehiengoaren oinarria baizik.

Lehendakariaren galdetegia ez dute begi onez hartu Madrilen...

Ibarretxe bere plana, Legebiltzarrean onartutakoa, defenditzera Madrilera joan zenean, zera galdetu zien Kongresuko kideei: errespetatuko duzue euskaldunek erabakitakoa ? Baina ez dute hori nahi, *iturria* zabaltzeko arriskua ikusten dutelako. Burujabetasuna lortzea izan da eta da gure helburua, eta Euskadin, Estatuan eta Europan erakutsi dugu zulotik ateratzen eta herrialde aberatsa izatera helduz. Julio Cesarrek zioenez, herriak ez dio politiko bati barkatzen ausarta ez izatea. Ibarretxe ausarta izan da ETAren inguruari eta sozialistei aurre eginez.

Gurutze-bide batean aurkitzen gara orain: estatu autonomikoa izaten jarraitu ala jauzia eman, gure etxean jaun eta jabe izan, alegia. Gure ahots propioa izatea funtsezkoa da. Ahotsik ez badaukagu herri bezala, ez gara existitzen.

Udal gobernuko kideek onartu zuten beste azterketa bat egitea. GOIENKARIA

BERGARA > AHT-KO OINARRIZKO PROIEKTUA

Ingurumen-eraginaz beste azterketa eskatuko dute

E.M. > BERGARA

Egubakoitzean Bergarako udaletxean egindako ez-ohiko batzarrean, Abiadura Handiko Trenaren proiektua dela eta, ingurumen-eraginaz Jaurlaritzari beste azterketa bat egitea onartu zuen udalbatzak, gobernuko kideen aldeko botoekin. EAJ eta EA abstenitu egin ziren eta PSE-EEk kontrako botoa eman zuen.

Udal gobernuko kideen arabera, kontraesanak daude Bergarako tramuari dagozkion aurre azterketa eta ingurumen-eragina aztertzen duen txostenen artean. Gauzak horrela, beste azterketa bat egitea eskatuko diote Jaurlaritzari .

EAJk zein PSE-EEk oinarrizko proiektua denboraz aztertzeko astirik ez dutela izan adierazi zuten. AHT Gelditu! Elkarlaneko bi kidek hartu zuten parte osoko bilkuran, udalei kontu honetan sartzen zaien presa salatuz.

BERGARA > ATXILOKETA

Gazte bat atxilotuta botila batekin erasotzeagatik

Barrenkalen izan zen liskarra; gazte batek botila bat buruan hautsi zion beste bati

ARRITXU BARRUSO > BERGARA

Domekan 01:00ak inguruan izan ziren gertakariak. Lekukoek kontatutakoaren arabera bi gaztek borrokan egin zuten eta batek botila bat hautsi zion besteari buruan. Azken hau Bergarako anbulatoriora eraman zuten eta handik Arrasateko ospitalera, baina, etxean da berriz.

Ertzaintzak erasotzailea atxilotu zuen domeka goizaldean bertan eta lekukoei gertatutakoaren inguruan galdetu zien. Ertzaintzaren prentsa bulegotik esan digute gertatutakoa aztertzen dabiltzala.

Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU
EROSKI
zurekin

Sukaldaritzaren mundua aztoratuta dago egunotan Santi Santamaria sukaldari katalanak egindako adierazpenen harira. Egungo jatetxeetan produktu kimiko larregi erabiltzen direla eta plateren gaineko informazioa eskaini beharko litzatekeela esan du. Oñatiko Zelai-Zabaleko Alberto Elortza eta Bergarako Lasa jatetxeko Koldo Lasak bere iritzia eman digute.

Alberto Elortza eta Koldo Lasa > Oñatiko Zelai-Zabal eta Bergarako Lasa jatetxeetako sukaldariak

"Sukaldean berritzen dela argi dago; klasikoek eta berritzaileek egiten dugu"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Bergarako Lasa jatetxean elkartu ditugu Oñatiko Zelai-Zabal eta Bergarako Lasa jatetxeetako sukaldariak, Alberto Elortza eta Koldo Lasa, hurrenez hurren. Gaur egungo sukaldaritzaren gainean hitz egin dugu biekin.

Bergarako Lasa jatetxeko Koldo Lasa eta Oñatiko Zelai-Zabal jatetxeko Alberto Elortza, Lasako sukaldean. MIRIAN BITERI

Lehenik eta behin, zer iritzi duzue sukaldaritza berritzailearen gainean?

Koldo Lasa: Bizitza osoa daramagu berritzen. Kimikako laborategia daukagu eta logikoa denez, beti gaude gauza berriak probatzen. Horietatik, batzuek aurrera egiten dute eta beste batzuek ez. Egia da egungo sukaldaritza gero eta harrigarriagoa dela; Ferrán Adriák gidatzen du hori. Urte erdia ematen du horretan. Arlo guztietan ikertu beharra dago, baita sukaldaritzan ere.

Alberto Elortza: Ados nago. Gero eta gehiago berritzen dugu; gaur egun erabiltzen ditugun teknikak orain dela 20 urtekoak baino modernoagoak dira. Aurrera pausuak eman dira. Berritzen dela argi dago; klasikoek eta berritzaileek egiten dugu.

K.L.: Hala ere, bi sukalde mota daude beti: ona eta txarra. Batean eta bestean ezinbestekoa da sukaldean oinarri sendoa izatea.

Egunotan ika-mika handia dago Santi Santamaria sukaldariak egindako adierazpen batzuen harira. Besteak beste, jatetxeetan produktu kimiko larregi erabiltzen direla esan du. Zer diozue?

K.L.: Nire aitonak produktu kimikoak erabiltzen zituen. Adriá, agian, produktu kimikoen banderaduna da. Baina ez dugu ahaztu behar horiek legalak direla.

A.E.: Produktu kimikoak erabiltzen direla argi dago. Beti erabili dira. Arazoa suerta daiteke erabiltzen den kopuruarekin. Gehiegi eta baldintza jakin batzuetan erabiltzen baldin bada, osasun arazoak sor daitezke. Neurrian erabiltzen bada, ez da ezer gertatzen. Beste gauza bat da norberaren gustukoa izatea edo ez.

K.L.: Sukalde abangoardista dago, harritzea bilatzen duena. Jendea ez doa hara jatera, momentuaz gozatzera baizik. Horrelakoetara ez zoaz astean behin. Orain dela bi urte Adriáren jatetxean izan nintzen eta izugarri gozatu nuen. Santi Santamariaren etxean ere egonda nago eta berdin. Etika profesionalagatik, sukaldari bat ezin da bestearekin sartu.

Jatetxeei plateren gaineko informazioa ematea proposatu du. Ados zaudete horrekin?

K.L.: Hemendik gutxira, Osasunak eskatzen digunarekin, goizean zer ordutan jaikitzen garen azaldu beharko dugu.

A.E.: Oso kontrolatuta gaude. Baina hori jatetxe barruko kontua da. Kanpokoari begira, badauzkagu bezero batzuk egun osoa ordenagailuaren aurrean pasatzen dutenak eta irakurtzeko erraza den karta eskatzen dutenak; zuk zeuk esaten badiozu zer dagoen hobe. Nik ez dut esaten ideia txarra denik gauzak azaldu behar direla, baina ez jatetxe guztietan. Maila erdi-altuko jatetxe batean argi dago zer eskaintzen den.Otordu lasterreko jatetxeek ez dute hori ondo zehazten.

Debagoiendarrak berritzaileak dira platerak eskatzerako orduan?

K.L.: Batzuk bai. Gurera etortzen den bezeroen %80 klasikoa da. Baina, beti eskaintzen zaie plater berritzaileak dastatzeko aukera. Batzuk probatzera animatzen dira.

PROBAK

"Beti gaude gauza berriak probatzen. Horietatik, batzuek aurrera egiten dute eta beste batzuek ez"

DEBAGOIENDARRAK

"Gurera etortzen den bezeroen %80 klasikoa da. Baina, beti eskaintzen zaie plater berritzaileak dastatzeko aukera "

ELKARTE BERRIA

"Ehun urtetik gorako eraikinek mugak dituzte eta laguntza behar dugu gaur egungo araudiak betetzeko"

A.E.: Hala da, aukera ematen diegu. Baina, gure bezeroak nahiko klasikoak dira. Zerbait berria probatzea kostatzen zaigu hemen. Agian, izan daiteke orain arte ez delako aukera hori eskaini. Bailaran jatetxe asko daude eta agian, saiatu beharko ginateke plater berriak egiten.

K.L.: Bezero abangoardistak ez dira hona iristen. Donostian, esaterako, ikerketa laborategi eta lantalde itzela duten Pedro Subijana eta Juan Mari Arzak daude eta bezeroak hara joaten dira. Bailarara klasikoagoak direnak etortzen dira.

A.E.: Gu, azkenean, gure bezeroetara egokitzen gara; gure lanaz bizi gara.

Zer diozue Sukal-Leku egitasmoaren gainean ?

K.L.: Primeran ikusten dugula. Hasieratik egon gara horretan eta esfortzu handia egin behar izan dugu sortzeko. Kolaboratzeko prest gaude; behar duten guztirako gaude.

A.E.: Ikerketa eskola baten modukoa da. Sukaldaritzaren gaineko informazioa gaurkotuta eta eskuragai izatea bilatzen du, besteak beste. Bakoitzak dakiena besteei eskaintzea ere funtsezkoa da egitasmo horretan.

Ehun urtetik gorako jatetxeak bilduko dituen elkartea sortuko omen da. Lasa eta Zelai-Zabal hor daude?

K.L.: Nik ez dauzkat ehun urte.

A.E.: Gureak 110 urte ditu. Nire aitonak jarri zuen martxan. Niri egokitu zait elkarte hori martxan jartzea. Euskal Autonomi Erkidegoa ordezkatuko dut eta ilusio handiz egingo dut. Ekainean jarriko dugu martxan. Ehun urtetik gorako eraikinek mugak dituzte eta laguntza behar dugu gaur egungo araudiak betetzeko. Baina, gogorazi behar dut Eurotoques elkartearen barruan gaudela eta hori defendatu behar dugula.

oharrak eta deialdiak

BERGARA
> Basa-landareen gaineko erakusketa

Basa-landareen inguruko erakusketa ipini du Jose Antonio Aperribaik kultura etxean. Hau da bisita ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara.

ELGETA
> Sendabelarren gaineko ikastaroa dago

Sendabelarren gaineko ikastaroa emango du Alberto Altubek, Maya ingurumen taldeak antolatuta. Bihar hasiko da, Ozkarbi elkarteko sukaldean, 18:00-20:00. Argibideak, udaletxean.

ESKORIATZA
> Garapenaren gaineko ikus-entzunezkoa

Etiopian bizi den nerabe baten gaineko *Alamitou* bideoa emango dute, eta Mozanbikeko garapenean emakumeen paperaren gaineko hitzaldia egongo da gero. Mundumiraren barruan da. Gaur, astelehena, izango da, Ibarraundin, 19:00etan.

ARRASATE
> Arrasate Musikalen matrikula egin daiteke

Arrasate Musikal eskolak zabalik dauka matrikulazio epea, ekainaren 20a arte. Horretarako, Monterron jauregira jo behar da astelehenetik eguenera, 17:00etatik 20:00etara hain zuzen ere.

ARETXABALETA
> Patin Sugea egubakoitzean Iralabarrin

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketak (TAFYD zikloak) Patin Sugea antolatu du ekainaren 6rako. Partaide guztiak gerritik helduta sugea osatuko dute eta elkarrekin 500 metrotako ibilbidea burutzen saiatu. Iralabarri plazan, 18:30ean.

ESKORIATZA
> Mendekotasunaren gaineko ikastaroa

Zure nagusiak maite dituzunez, hobeto zaintzen ikasi delako ikastaroa emango dute Ibarraundi museoan ekainaren 16tik 20ra, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako departamentuak antolatuta. Argibideak Udaleko gizarte zerbitzuetan.

OÑATI
> Ebanjelioaren gaineko ikastaroa hasiko da

Elkar Hezik antolatuta, Maria Jesus Amundarainek *Ebanjelioa gaur eta hemen, bertatik bertara. Ezagutzeko, hausnartzeko eta otoitz egiteko bidea* delako ikastaroaren lehen saioa gidatuko du. Bihar, martitzena, izango da, Elkar Heziko LHko liburutegian, 18:30ean.

ARETXABALETA
> Etxeko arriskuen gaineko berbaldia

Etxeko arriskuen eta lehen laguntzen gaineko hitzaldia Basotxoko erretiratuen egoitzan bihar, 17:00etan.

BERGARA
> Musika eskolan matrikula egiteko aukera

Musika eskolak ekainaren 15era arte dauka zabalik matrikula egiteko epea. 3 urtetik aurrerakoek egin dezakete, eta hainbat aukera daude. Argibideak 943 76 57 80 telefonoan.

ARRASATE
> Bularreko minbizia prebenitzeko aholkuak emango ditu Onkologia Institutuko mediku batek

Maiatz hasieran egitekoak ziren bularreko eta ginekologia minbiziak prebenitzearen gaineko hitzaldia, baina atzeratu egin behar zuten, eta eguenean, hilak 5, izango da. Lourdes Aritziturri Donostiako Onkologia Institutuko ginekologoak egingo du, Amaia antzokian, 17:30ean, Katxalin elkarteak antolatuta.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

BERGARA
> Euskaltegiaren 25. urteurreneko afaria

Udal Euskaltegiak 25. urteurreneko afaria antolatu du ekainaren 20rako Zabalotegin. Euskaltegiarekin lotura izan duten guztiak daude gonbidatuta. Txartelak euskaltegian daude salgai, 15 eurotan, edo 943 76 44 53 telefonora deituta.

DEBAGOIENA
> Mundumirako elastiko solidarioa salgai dago

Mundumira jaialdiko elastiko solidaroak erosteko aukera dago honako lekuetan: Antzuolako Itzar liburudendan; Bergarako kultur etxean eta Igartua, Lazkano eta Bolintxo kirol dendetan; Aretxabaletako Asensio jantzi dendan; eta Oñatiko kultura etxean; horrez gain, 902 18 14 71 telefonoan.

BERGARA
> 1949an jaiotakoek bazkaria izango dute

1949an jaiotako bergararrek batera bazkaltzeko aukera dute ekainaren 7an Agorrosinen. Izena emateko: 625 70 01 80 edo 943 77 70 30.

ARETXABALETA, ESKORIATZA
> Odola emateko aukera dago egunotan

Odol-ateratzeak egongo dira: gaur, Aretxabaletako osasun zentroan, 16:15etik 20:00etara; eta bihar, Eskoriatzako osasun zentroan, ordutegi berean.

etxeko leihotik

Usoa Agirre > uagirre@goiena.com

Internet askea? Batzuentzat bakarrik

Ezin dugu nahi duguna bidali e-postaz edo nahi dugun argazkia jarri gure fotologean. Bagenekien adierazpen askatasunik ez zegoela euskaldunontzat, baina Internet beti izan da leku aske bat eta handik edo hemendik topatzen dugu pentsatzen duguna adierazteko bidea. Leku aske horrek, ordea, mugak ditu euskalduna bazara. Joan den astean Entzutegi Nazionalera deklaratzera eraman zuten ordiziar bat, "terrorismoaren apologia" egitea egotzita. Zenbait komunikabidetan azaldu denez, "biktimen babeserako foroetan iritzi mingarriak utzi ditu eta *ikur nazionala* erretzen zuten batzuen argazkiak banatu ditu Internetez". Guardia Zibilaren esku hiru egun egin eta aske utzi dute Entzutegi Nazionalean deklaratuta. Hamabostean behin joan beharko du epaitegira.

"Horrelako txisteetatik abiatuta ixten dira gero komunikabideak"

Vaya Semanita-ko esketxa dirudi, baina ez da. Horrelako "txisteetatik" abiatuta ixten dira gero komunikabideak edo egiten dituzte antzerako sinistuezinak. Adierazpen askatasunaren edozein urraketa zilegi da "terrorismoaren aurka" bada. Internet ere ez da askea dagoeneko, txalaparta bidez komunikatzera itzuli beharko dugu.

> Ondokoaren ideiarekin ados egon edo ez, ezin diozu ixiltzeko esan. Eta gutxiago kartzelara eraman. Baina, adierazpen askatasunaren gainetik beste interes batzuk badaude, jai dugu.

> Sevillan atxilotu dute beste bat Internet bidez "terrorismoaren apologia" egiteagatik. Epailearen aurrean deklaratuta aske utzi dute. Hura ez da euskalduna eta ez du 15 egunez behin epaitegira joan beharko.

debagoiendarrak kanpoan

Larraitz Arana > Arrasate

"Bilbo ezagutzeko gonbidapen bat egin nahiko nuke, pena merezi du-eta"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Larraitz Arana (Arrasate, 1976) bilbotarra bihurtzen ari da, berak hala jakinarazi digu. Izan ere, Bizkaiako hiriburuan daraman bizimodura erabat ohituta dago. Biologian lizentziatua, mendia oso gustuko du Aranak. Nahiz eta hango erliebea ez izan gurea bezain menditsua, oraindik ere egiten du irteeraren bat edo beste, han ere badago-eta zer ikusi. Mendiaz gain, irakurtzea, musika entzutea, zinemara joatea eta puzzleak egitea ere gustuko du. Zaletasunik ez zaio falta, beraz.

Noiz utzi zenuen Arrasate Bilbora joateko?

Orain dela sei urte etorri nintzen Bilbora eta, hainbat auzotan bizi izan eta gero, gaur egun Santutxun bizi naiz, hiriko alde zaharretik oso gertu.

Zein izan zen Bilbora joatearen arrazoia?

Bilbora bizitzera etorri nintzen Leioako Euskal Herriko Unibertsitatean master bat egitea erabaki nuenean. Eta, bueltatu ordez, masterraren ostean hemen geratzea pentsatu nuen.

Zein da zure egungo egoera ?

Egun ingurugiro zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa baten ari naiz lanean, Bilbon bertan.

Bueltatzeko asmorik ba al duzu?

Ez, uste dot dagoeneko bilbotar eginga nagoela, bizimodua hemen daukat egina.

Nongo bizimodua aukeratuko zenuke, hangoa ala hemengoa?

Ez dakit, ezin da bata bestearekin konparatu, oso ezberdinak dira-eta. Bata, hiri handia da eta bestea, berriz, herria. Egia esan, bietan gustora egoten naiz.

NEREA ARTOLA

Familia eta lagunak
Bilbon bizitzera eginda dagoela dio Aranak, hala ere, familia eta lagunak faltan botatzen ditu.

Bilbo eta Arrasate oso ezberdinak direla diozu. Baina bilbotarrak eta arrasatearrak ere hain ezberdinak dira?

Ba, jendeari dagokionez, oro har ez nuke ezberdintasun handia dagoenik esango. Pentsatzen jarriz gero, agian bada ezberdintasun bat: Bilbon bakoitza bere aldetik doa, jendeari bost axola zaio zuk zer egiten duzun.

Zein alde on ditu Bilbok? Eta alde txarrak?

Bilbo hiri handia da eta denetarik eskeintzen du. Gainera, orain oso polita jartzen ari da, paseo berriak, gune berde gehiago.... eta zentzu horretan asko ari da aldatzen. Kaleko giroa oso ona da. Bestalde, hiriaren desabantaila garbi bat trafikoa da. Zoratzekoa da trafikoa Bilbon. Oso hiri masifikatua da, dentsitate handikoa. Geografikoki ez du aukera handirik ematen, ez dago leku askorik. Dagoen leku eskasa, gainera, etxez beteta dago. Oraindik ere parke gehiago falta dira.

Zer botatzen duzu faltan zure herritik?

Familia eta lagunen falta somatzen dut bereziki, oso garrantzitsuak dira-eta niretzako.

Zerbait gaineratzerik nahi?

Arrasaten, oro har, Gazteizera joateko zaletasun gehiago dago, baina nik Bilbo ezagutzeko gonbidapen bat egin nahiko nuke, pena merezi du-eta.

kale inkesta

Krisian gaudela diote adituek. Eguneroko erosketetan nabaritu duzu prezioen igoera?

Jon Mikel Larrañaga
Langilea
Oñati

Asko nabaritu dugu etxean, batez ere eguneroko janariarekin eta gasolinarekin. Duela gutxi arte, 30 eurorekin egundoko erosketa egiten nuen, eta zer esanik ez, gasolindegira joaten naizen bakoitzean.

Mª Carmen Zelaia
Erretiratua
Oñati

Prezioak asko garestitu dira, baina momentuz, ondo moldatzen gara etxean. Gainera, etxean, arrautzak saltzen ditugu lehengo prezioan, igoera barik, baina, pentsua asko garestitu da, eta horrek kalte egiten digu.

Aitor Guridi
Langilea
Oñati

Batez ere, gasolinak izan duen gorakada aipatuko nuke, baina, momentuz ez gara hasi murrizketak egiten. Ume txikia dugu eta parrandara askoz gutxiago irteten gara orain, eta hori behintzat aurrezten dugu.

Jose Mª Kortabarria
Langilea
Oñati

Egia esan bai, nabaritu dugu prezioak asko igo direla, batez ere janarietan eta gasolinaren prezioan. Arraina eta frutak asko garestitu dira, baina oraingoz, moldatzen gara. Ez naiz hasi murrizketarik egiten.

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARETXABALETA
> Joan den asteko ur jauziekin sortutako kalteak

Aretxabaletako emakume batek e-maila bidali zigun eguaztenean, joan den domekan Aretxabaletan gertatukoa salatzeko. "20 bat minutuko euri zaparradaren erruz, nola da posible herrian uholdeak izatea? Euria jasotzera ohituta ez dagoen herrialde baten hori gertatzea tira, baina Aretxabaletan... Gezurra dirudi holakoak jasotzeko behar den moduan gertu ez egotea oraindik".

BERGARA
> Odol emaileen eskerrak

Bergarako Odol Emaileen elkarteko ordezkari batek eskerrak eman nahi dizkie eguaztenean odola eman zuten guztiei. 101 lagunek erantzun zioten elkarteak egindako deialdiari.

ARRASATE
> Telefonia konpainien trabak

Ostiraleko Goienkarian azaldutako albiste baten harira, Arrasateko irakurle batek deitu digu, telefonia enpresek konpainiaz aldatzeko jartzen dituzten trabak salatzeko. Urtetan izan du kontratua enpresa batekin eta, oferta bat aprobetxatuz, konpainiaz aldatzeko erabakia hartu duenean, trabak baino ez dizkiote jarri. Irakurle honen arabera, konpainia guztiek jokatzen dute antzera euren bezeroekin. "Horrela eskertzen digute urtetan izan diegun fideltasuna? Lotsagarria da eta gobernuak edo dagokionak ez du ezer egiten horren aurrean".

usteak uste

Arritxu Barruso

Eta 2009an? Auskalo

Euria izan dugu protagonista maiatzean; 175 litro inguru bota zituen metro koadroko.Baina, izan omen dira maiatza euritsuagoak; 1991n 279 litro jaso genituen bailaran. Hurrengo urteko maiatza, berriz, beroa izan zen oso. Ez naiz ni Luis Mari Agirre bergararra bezala, eguraldiaren datuak jaso eta gordetzen dituena. Baina, ederki asko gogoratzen dut 1992ko maiatza. Nire neba txikia jaio zen-eta urte hartan. Nire ama ere majo gogoratzen da ospitalean pasa zituen beroekin, gradu zehatzak ere emango dizkizu galdetuz gero. Danimarkako lagun bat izan nuen bisitan orain dela gutxi eta hark galdetu zidan ze eguraldi egiten duen hemen uda partean. Nire erantzuna... Auskalo!

zorroztailea

Markos Balentziaga

PPko kakanahastia

"PPk hartu beharreko bidearen gaineko Agirreren eta Rajoyren arteko desadostasuna joan den martitzenean agerian geratu zen. Agirre Maria San Gilen posizioekin lerratu zen, joan den legealdiko politikari eutsiz. Rajoy kontra egin zion, zentroan kokatutako alderdi bat defendituz"

El Diario Vasco > 2008-V-31

Rajoy invita a Aguirre a formar parte de su equipo pero le pone condiciones

PPko balkoittik politikiaren plazara ardura haundiz begiratu izan da beti. Plazan arinkeixia, ganorarik eza eta narraskeixia ikusten ziran/dira; balkoittik barrruko aldera, ostera, erresponsabilidadia, buruargittasuna, eta España. Ikuspegi horren buruan Zaplana eta Acebes zeren; buruaguan, Rajoy eta Mayor; buruenian, Aznar eta Jainkua bera, parez pare.

Baña aginte-miñaren iñarrosak alderdi guztiak astintzen dittu. Eta PPkuen txakurrak be, beste danenak letxe, ortozik dabitz.

Oraiñ ikustekuak dira PPko lider-edo diranak harro-haiziak galduta, ekaiñeko kogresuan aginte-makillia zeiñek eruango daben antzemon nahixan, Rajoyrengan zeben uste onari ustel iritzitta.

Rajoyri hamaika bider esan dotse joan dan lau urtian egin dabena dihardotsela egitten oraiñ berari: aurkarixa apurtu, txikittu, beste ezeri begiratu barik. Rajoy bera, Zaplana, Acebes, Aguirre, Aznar... gandor bariko ollaritxuran ikustia ikuskizun barrixa eta freskagarrixa da.

Partidua zatittuta dago; Rajoy, presidentia, erdi kixkalduta dabil, bi hauteskunde orokor galdu ondoren. Krisi ekonomiko hasi berrixa dala eta PP, halako *rottweilerra* lehen, PSOEri zaunka mozolo bat egitteko be ez da gauza oraiñ.

"PPkuen txakurrak be, beste danenak letxe, ortozik dabitz"

"PPk azken bi hillabetiotan edarki alaittu doskuz albistegixak"

Eta zirko horretan guztian, UPN isil-isilik! Iñork entzun edo irakurri dau kontu honen guztiaren gañian UPNko ollarren batek esandako edo idatzittako berba erdirik? Jakiña, UPN ez da PP! UPNen, PPren etxeko ala etxekoneko izan, hautsik ez harrotzeko agindua dauke; hautsa zikiña da.

PPk azken bi hillabetiotan edarki alaittu doskuz hedabide eta albistegixak. Eskerrik asko. Ekaiñian egitteko daben kongresu ostian, baña, Plan Ibarretxe/Ibarretxe planaren kontrako plan planifikatuak hartuko dittu –hartu dittu ja– mass mediak. Pixka baterako datoz, gañera, bai Ibarretxe eta bai plana. Ez dogu entretenimendurik faltako.

ASTELEHENEKO
Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Erredakzioa** Arritxu Barruso, Arantzazu Ezkibel, Mireia Bikuña **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 **Bergara** > 11 **Oñati** > 12 **Aretxabaleta** > 13 **Eskoriatza** > 13
Antzuola > 14 **Aramaio** > 14 **Elgeta** > 14 **Leintz Gatzaga** > 14

> ARRASATE
San Juan jaietako txosna batzordeko kideekin elkarrizketa **> 10**

> BERGARA
Herriko ondarea ingelesez ezagutzeko aukera dute ikasleek **> 11**

> OÑATI
Gaur zabaldu du Musika Eskolak izenemate epea **> 12**

> ELGETA
Osokoak haurreskolaren proiektua onartu du **> 14**

ARETXABALETAN Argazian, Iñaxio Garro alkatea zapatuan Aretxabaletara etorritakoei ongi-etorria ematen. Haren ondoan, Josean Idoeta eta Jokin Antxia Atzegiko kideak. JOSETXO ARANTZABAL

ARETXABALETA > ATZEGI JAIA

Laburmetraiak, bazkaria eta musika Atzegi jaia lagun artean ospatzeko

JAIA
Atzegik ibarrean antolatu duen 9. jaia izan da; lehena, 2000. urtean egin zuten

LABURMETRAIAK
Ekitaldi hasieran 'Tariro-tariro' eta 'Amapolia' filmak eskaini zituzten

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA

Debagoieneko Atzegiko familiek Atzegi eguna ospatu zuten zapatuan Aretxabaletan. Guztira, 140 lagun elkartu ziren. Jokin Antxiaren ongi etorriak eman zion hasiera zapatuko jaiari. Debagoieneko Atzegiko kidea da Antxia.

Kurtzebarri eskolan elkartu ziren Atzegiko kideak eta lagunak; tartean zeuden, Iñaxio Garro Aretxabaletako alkatea eta Josean Idoeta Atzegiko presidentea.

BEDERATZIGARREN ALDIA

"2.000. urtean hasi ginen Atzegi eguna ospatzen; Atzegiren 40. urteurrenean, hain zuzen. Urte hartan Eskoriatzan ospatu zen jaia; gerora, ibarreko herri guztietan egin izan dugu", azaldu zuen Antxiak.

Ondoren, Garro alkateak hartu zuen berba. "Joan den astean uholde txiki bat izan genuen herrian; nire nahia, gaur beste uholde bat izatea da. Baina, umore, alaitasun eta jai uholdea", esan zuen.

Aurkezpenak amaitutakoan II. Atzegi Laburmetrai lehiaketan sarituak izan diren *Tariro-Tariro* eta *Amapolia* filmak jarri zituzten. *Tariro-Tariro* Bergarako eta Arrasateko Txolarte taldeak egin du eta lehiaketako bigarren saria irabazi du. Gainera, Jose Javier Elgero bergararrak aktore onenaren saria irabazi du. Zapatuan, Kurtzebarrin elkartutakoen txalo zaparrada jaso zuen Elgerok egindako lanagatik.

Soinu arazoak tarteko, *Amapolia* filma entzuteko aukerarik ez zen egon zapatuan; bai, ordea, ikusteko. Han zeuden barre algaren artean, txalo ugari jaso zituen Aretxabaletako Aratz elkarteak egindako lanak. Lehiaketan lehenengo saria irabazi du *Amapolia*k.

ESALDIAK

"Guretako jai garrantzitsua da Atzegi jaia; kalera irten eta ondo pasatzea da helburua"

Jokin Antxia > Atzegiko kidea

"Gaurko Atzegi jaia uholde txiki bat izatea gura dut; baina, umore, alaitasun eta jai uholdea izatea espero dut"

Iñaxio Garro > Aretxabaletako alkatea

BAZKARIA PILOTALEKUAN

Bazkaltzen 14:00etan puntuan hasi ziren; menestra, okela gisatua eta postrea izan zuten. Bazkalondoren, musika lagun, dantza egin zuten 18:00ak arte. "Lagunekin egon eta ondo pasatzeko eguna da gaurkoa", esan zuen Antxiak.

NEBA-ARREBEN LANA

Antxiak azpimarratu zuen, Debagoieneko Atzegi elkartean urritasuna dutenen neba-arrebak dabiltzala lanean –ohikoena gurasoak izatea da–. Hala, horien konpromisoa azpimarratu zuen.

Joseba Iglesias > San Juanetako Txosna Batzordeko kidea

"Aurten ahalegin berezia egin dugu gazte arrasatearren parte hartzea bultzatzeko"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Azkenaldian ohi baino lanpetuago dabil Joseba Iglesias (Arrasate, 1990). Bere betiko eginbeharretaz gain, Txosna Batzordeko prentsa arduraduna izateak sortzen dizkion buruhausteak ere ari da "pairatzen". Jai eredu herrikoi eta parte hartzaileen alde dago Iglesias, eta gazte arrasatearrei San Juanetan herrian geratzeko eta ekintzetan parte hartzeko deia luzatu die.

Txosna Batzordeko prentsa arduraduna zara. Nortzuk osatzen duzue batzordea?

Txosna Batzordea gazte arrasatearrez osatua dago. Era berean, herriko elkarte, kultur talde eta eragileen ordezkaritza anitza dugu taldean. Finean, Arrasateko gazteriaren zati handi bat ordezkatzen dugu.

Zein da zuen helburu nagusia?

San Juan jaietan gazte arrasatearren parte hartzea bultzatzea. Txosna Batzordeak jai eredu herrikoi eta parte hartzailea defendatzen du. Eta, helburu hau lortzeko, herriko gazteei honakoa eskatu nahi diegu: San Juanetan herrian gelditu daitezela eta Txosna Batzordeak antolatu dituen ekintzetan aktiboki parte hartu dezatela.

Herritik alde ez egiteko eta parte hartzerako deia, beraz. Egingarriak diren helburuak direla uste al duzu?

Ba, egia esan, ez ditugu helburu errazak zehaztu, ez horixe! Jende asko oporretan joaten da San Juan jaietan. Guk bereziki gazteei egiten diegu herrian geratzeko deia: aurtengo San Juanetan geratu zaitezte herrian, sekulako giroa egongo da-eta.

Parte hartzeari dagokionez, gaztetxean daramatzadan urte hauetan zehar azkar asko konturatu naiz Arrasateko gazteek ekintza ezberdinetan oso parte hartze baxua dutela. Ea hori aldatzeko gai garen...

"Gazte arrasatearren parte hartze maila baxua da oso. Ea hau aldatzeko gai garen..."

"26an San Juanetako parranda zaleenari 'Urrezko Dragoia' saria emango zaio"

Zein mekanismo erabiliko dituzue parte hartzea bultzatzeko?

Aurten ahalegin berezia egin dugu horretan. Gure bitarteko erabilienak kale animazioa eta kultur ekitaldiak antolatzea dira. Aurten, esaterako, arrasatear txaranga bat arduratuko da kaleak girotzeaz, "Dragoialde" izeneko txaranga, hain zuzen. Arrasate Musikaleko kideak dira gehienak, eta gaztetxean entseatzen dihardute. San Juanetan, lehenengoz egingo dute herri osoarentzako kalejira.

Bestalde, gu ere gazteak garenez gero, gazteei interesatzen zaizkien kultur ekitaldiak nahiko ondo ezagutzen ditugu eta horren arabera antolatzen dugu guk gure egitaraua.

Ba al da aipamen berezia merezi duen berritasunik aurten?

Berritasunen artean "Urrezko Dragoia" saria aipatuko nuke. Sari hau azken egunean banatuko zaio 2008ko San Juanetako parranda zale handiena izan denari. Apustuak zabalik daude...

"San Juanetako garrak ixotuko dittu baztarrak". Nondik atera duzue aurtengo lema?

Lema aukeratzeko ere parte hartzean oinarritu gara. Herriko tabernetan paper batzuk jarri genituen nahi zuenak bere lema idatzi zezan. Hala, erantzunetatik bat aukeratu, egokitu, eta horrela atera dugu aurtengo lema.

Bestalde, blog bat sortu dugula jakinarazi nahi dut lerro hauetatik. Hala, aurtengo San Juan jaien inguruan informazio gehiago nahi duenak *www.sanjuanak08.blogspot.com* helbidean sartu besterik ez du egin behar. Tabernetan jasotako lemak irakurri ahal dira blogean, baita eguneratzen joango den San Juanen inguruko informazioa ere.



Joseba Iglesias San Juanetako garra "ixotzen" duen dragoiarekin J.B.

Txosnen egitaraua

21, Amalurraren Eguna
12:00 Txupinazioa eta irekiera
13:30 Dragoialderekin poteoa
16:30 Koadrilen olinpiadak
00:00 Kontzertuak. The Death Ones eta Golpe de Estado.

23, Kuadrillen Eguna
14:30 Herri Bazkaria Gaztetxean
17:00 Makalaren igoera
01:00 Manifestazioa: "euskal presoak etxera!"

24, Gazte Eguna
17:00 Graffitiak eta malabarak
19:00 Kontzertuak. Ampolla en la polla, Chaos Kids eta The Convicts

25, Askatasun Eguna
14:30 Bazkaria txosna gunean
17:00 Preso eta iheslarien senideei omenaldia

KARTEL IRABASLEA

Eneritz Tirados da aurtengo irabazlea.

POLITIKA > EZ OHIKO OSOKO BILKURA

Talde Mistoa sortuko dute udaletxean, orain arte EAEko zinegotzi izan direnak hartzeko

Paco Gartzia alderdi sozialistako bozeramaileak iragarri zuen udalbatzarraren erabaki hori inpugnatzeko aukera zabalik uzten dutela

UBANE MADERA > ARRASATE

Ino Galparsoro alkatearen jarlekua hutsik zegoela egin zuten alkate bako lehen osoko bilkura eguenean. Galparsororen argazkia ipini zuten haren lekuan eta gogora ekarri egubakoitzean (maiatzaren 30ean) bete zela hilabete kartzelan sartu zutela.

Eztabaidatu zituzten puntuei dagokienez, berriz, Garzon epailearen autoaren ondorioek eragindakoak aztertu zituzten lehenengo. Tartean, onartu zuten orain arte EAEko ordezkari izan diren zinegotziak Talde Mistora pasako direla.

PSE-EEk eta PPk izan ezik, gainerako guztiek bozkatu zuten horren alde. Hori bai, udal gobernuko kideek, Aralarrek eta EB-Zutik koalizioko kideek "legeak behartuta" eman zuten aldeko botoa.

Paco Gartzia sozialistak, berriz, azaldu zuen kontra daudela, Garzon epailearen autoa "oker" interpretatzen dabiltzalako. Sozialistaren ustez, EAEko kideek ezingo lukete jardun talde moduan, indibidualki baizik; eta jasotzen dituzten dirulaguntzak eten egin beharko liratekeela uste du, besteak beste. Gaineratu zuen udalbatzarrak hartutako erabakia "inpugnatzeko" aukera zabalik uzten dutela.

Horrez gainera, Adierazpen Instituzionala ere onartu zuten; haren bitartez, gogora ekarri dute, besteak beste, Ino Galparsoro "bozetan izandako emaitzen ondorioz Arrasateko alkatea izendatua izan zela". Diote alkateaaren kartzelaratzea "bidegabea eta arrazoi gabea" dela , eta baita ere, justiziak ez duela Ino Galparsorori "askatasuna kentzeko arrazoirik".

Bat egin zuten Adierazpen Instituzional horrekin alderdi guztiek, sozialistek eta alderdi popularrak izan ezik.

Horren aurrean, Paco Gartzia sozialistak adierazi zuen inori ez diotela ukatzen "politikan berdintasun egoeran parte hartzeko eskubidea" eta PSOEk ez duela "inor kartzelaratzen, justiziak, baizik". Gartziak azpimarratu zuen "herri honetan botereen arteko banaketa ematen dela".

Bestelakoen artean, Legutioko atentatua gaitzesteko mozio alternatiboa onartu zuten, EAJk, EAk, Aralarrek eta EB-Zutik koalizioak aurkeztutakoa.

Ainhoa Arbelaitz > Xipizaro ludotekako arduraduna

"Helburua, haurrek aisi denbora giro euskaldunean igarotzea da"

JASONE ZABALA > BERGARA

Ainhoa Arbelaitz Xipizaro ludotekako arduraduna da. Ekainaren 30ean hasi eta uztailaren 24ra arte umeendako udalekuak antolatu dituzte. Guztira 300 haurrek hartuko dute parte. "Elkarrekiko errespetua, talde lana, kidetasuna..." dira udaleku hauetan bultzatu nahi diren baloreak, Arbelaitzek adierazi digunez.

Zenbatgarren urtea da udalekua antolatzen?

1995ean sortu zen Xipizaro Ludoteka, eta geroztik urtero ibili gara antolatzen.

Zenbat ume apuntatu dira guztira? Urtetik urtera udaleku hauetara apuntatzen den haur kopuruak gora edo behera egin du?

Aurten 300 haur daude izena emanda. Kopurua gutxi gorabehera mantendu egiten da urtetik urtera. Dena den, kontutan izan behar dugu, jaiotze tasa ere jaisten ari dela, eta guk ere nabaritzen dugula.

Adinaren arabera talde ezberdinak egongo dira? Zein adinetakoak dira gehiago?

Taldeak egiterako orduan, adina, ikastetxea eta sexua izaten ditugu kontutan. Hau da, adin berdineko haurrak izaten dira talde bakoitzean, baina ikastetxe desberdineko eta sexu desberdinekoak nahasten saiatzen gara, elkar ezagutzeko ona delako hori. Baina askotan ezinezko izaten da, ikastetxe berdinetik jende gehiago dagoelako adin kopuru horretan edo mutil gehiago daudelako... Baina irizpidea goian aipatu dudana da. Udalekuetara etortzen diren gehienak, Haur Hezkuntzako haurrak dira.

Zein izango da neska mutiko hauen aisi gunea?

Aurten denok Ipintzako DBHko ikastetxean kokatuko gara. Orain arte erabili ditugun ikastetxeetan konponketa batzuk egin behar dituzte-eta. Bi urteko haurrak, berriz, hau da, 2005ean jaiotakoak, Agorrosin ekintza gunean dagoen ludotekan egongo dira.

Zein da udaleku hauen helburua?

Haurren denbora librea edo aisialdia giro euskaldun eta jator batean igarotzea litzateke. Honekin batera, elkarrekiko errespetua, talde lana, kidetasuna... Kontutan hartu beharreko puntu garrantzitsuak direla ez da ahaztu behar.

Zenbat begirale egongo dira umeekin batera?

Guztira lau arduradun eta 30 begirale izango gara.

Prestatzen dituzuen ekintza eta irteerak urtetik urtera aldatu egiten dira? Adinaren arabera ezberdinak izango dira, ezta?

Normalean programak kanpora begira egiten ditugu. Kanpoko ekintzak antolatzen ditugu, urte guztia daukagu-eta barruan egoteko. Herriak dauzkan baliabideak erabiltzen ditugu udalekuetan: ziburuak, liburutegia, rokodromoa, igerilekuak, zinea, mendi irteerak, Osintxu auzoa, parkea, Gorla, Elosu, San Martzial, azoka... Programaketa adinen arabera egiten da.

Guztira zazpi programaketa desberdin egiten ditugu. Dena den, esan dudan bezala, kanpoko ekintzak beti ezin izaten ditugu burutu eguraldia dela-eta, orduan programaketa alternatibo bat izaten dugu; eguraldi txarra denerako egoitza barruan hainbat ekintza antolatzen ditugu. Egun bereziak ere antolatzen ditugu neska mutikoekin, besteak beste, San Ferminak, natura eguna, zirkoa, sukaldaritza...

Ainhoa Arbelaitz argazkian, Xipizaroko arduraduna. J.Z.

Udaleku hauek antolatzeko beste herrietako ludotekekin ere hartu emanean egoten zarete? Egiten duzue elkarlana?

Inguruko beste herrietan ere badaude ludotekak baina, egia esan, ez daukagu hartu eman handirik.

HERRIKO ONDAREA > UMEEN BISITA GIDATUAK

Herriko ondarea ingelesez ezagutzen

Ekainaren 5a arte, herriko hiru ikastetxetako ikasleek herriko ondarea ezagutuko dute

J.Z. > BERGARA

Herriko hainbat ikastetxetako neska mutikoak herrian zehar bisita gidatuak egiten ari dira bi astetan zehar, Udalak antolatuta. Herriko ikastetxetako 12 urteko 147 neska mutikok izango dute bisita gidatu hauetan parte hartzeko aukera. Bisita gidatu hauen berezitasuna, ingelesez egingo dituztela da. Horren helburua bikoitza da: alde batetik, herriko ondarea ezagutzea eta bestetik, ingelesa praktikatzea. Bisita gidatuak ordu eta laurdeneko iraupena dute, eta herriko ondarea eta txokorik esanguratsu eta politenak bisitatuko dituzte. Onintza Berasategi Turismo Bulegoko langileak zuzenduko ditu bisitak.

Aranzadiko neska-mutikoak, Berasategi gidariaren azalpenak adi entzuten. J.Z.

TOPAGUNEA

Aurrera doa 'Irakurri, gozatu eta oparitu'

Egitasmoaren helburu nagusia da euskarazko irakurketa bultzatutzea

J.Z. > BERGARA

Apirilaren 23an jarri zuen martxan Topaguneak, Euskara Elkarteen Federazioak *Irakurri, gozatu eta oparitu* egitasmoaren bigarren edizioa.

Irakurketa sustatzeko asmoz sortu zen egitasmoa, Hego Euskal Herriko 17 herritan, tartean Bergaran. Egitasmoaren helburu nagusia euskarazko irakurketa sustatzea da. Ekimen honek, ekarpena egin nahi dio euskarazko liburugintzari, liburuen ekoizpena eta salmenta bultzatuz. Lehen pausua, liburutegira joan eta euskarazko liburu bat maileguan hartzea da. Liburua irakurritakoan, liburutegira itzuli eta fitxa bat bete beharko da. Azken pausua liburua oparitzea da, norbaiti edo norbere buruari. Kanpainak uztailaren 26a arte iraungo du.

HEZKUNTZA

Udalak ikastetxeei 133.000 euro emango die

Herriko eskola eta elkarteen artean banatuko du Udalak dirulaguntza

J.Z. >BERGARA

Udaleko Hezkuntza batzordeak, 133.699 euro banatuko ditu herriko eskola eta eskola horietako guraso elkarteen artean.

Bederatzi eskola eta elkarteren artean banatuko du diru hori Bergarako Udalak: Angiozarko eskola, Aranzadi ikastola, San Martin ikastetxea, Mariaren Lagundia ikastola, Miguel Altuna institutua, Ipintza institutua, Ipintza guraso elkartea, Aspace eta Aransgi.

Dirulaguntza ez dute dena batera jasoko, bi zatitan baizik. Urtero ematen du dirulaguntza Udalak eskola eta guraso elkarteei. Diru kopuru hau 2008 urteari dagokiona da.

Arantxa Iturriotz > Musika Eskolako zuzendaria

"Egiten duguna erakusteko, egubakoitzean, plazan egingo dugu kontzertua"



Arantxa Iturriotz Musika Eskolako gelan. MIREIA BIKUÑA

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Arantxa Iturriotz, Jose de Azpiazu Musika Eskolako zuzendaria da. Ikasturte bukaerako kontzertua eskainiko dute ikasleek egubakoitzean, 18:30ean, eta irailean hasiko den ikasturte berrirako izenemate epea, gaur bertan zabaldu dute. Guzti horri buruz egin dugu berba.

Egubakoitzean kontzertua emango duzue plazan. Nolako izango da?

Oso bariatua izango da. Emanaldi horretan hainbat estilo eta instrumentu ikusi eta entzuteko aukera egongo da. Oñatiko Musika Eskolako ikasleek parte hartuko dute.

Zergatik herriko plazan?

Orain arte emanaldi gehienak Santa Ana antzokian egin ditugu, eta jeneralean hurbiltzen direnak, senitartekoak eta lagunak izaten dira. Hortaz, oraingoan herritar guztiengana heldu nahi dugu, eta plazan egitea erabaki dugu. Helburua da, ikasturtean egiten dugun lana erakustea.

Bestalde, gaur bertan zabaldu duzue izenemate epea.

Orokorrean, herritar guztiendako deialdia egiten dugu; hain zuzen, lau urtetik gorako edonork eman dezake-eta izena musika eskolan.

Noiztik nora eman daiteke izena? Non eta nola?

Izenemate epea ekainaren 20ra arte luzatuko dugu. Ikasturte berrian musika eskolan parte hartu gura duenak, 18:00etatik 20:00etara joan beharko du musika eskolako idazkaritzara.

Ze eskaintzen du Jose de Azpiazu Musika Eskolak?

Kalitatezko eta bakarkako irakaskuntza eskaintzen dugu. Gure eskaintzak hainbat gai eta jarduera biltzen ditu.

Alde batetik, musika tresnak lantzen ditugu bakarka; besteak beste, saxofoia, klarinetea, flauta, tronboia, tronpeta, tronpa, bonbardinoa, biolina, perkusioa, gitarra klasikoa eta elektrikoa, baxua, pianoa, akordeoia, trikitixa, panderoa eta txistua. Beste alde batetik, taldekako eskolak ematen ditugu: musika tailerra, lengoaia musikala, abesbatza, informatika musikala, ordenagailu bidezko armonia, analisiak eta entzumen saioak.

Eta azkenik, taldeka hainbat instrumentu lantzen ditugu: konboak, trikiti eta pandero taldea, akordeoi eta gitarra taldeak, txistu taldea, haizezko eta perkusio taldeak, eta pianoa lau eskutara.

"Jose de Azpiazu Musika Eskolak kalitatezko eta bakarkako irakaskuntza eskaintzen du"

"Duela 20 urte sortu zen Oñatiko eskola, kultur musika sustatzeko helburuarekin"

"Musikak, arreta, kontzentrazioa eta, memoria garatzen ditu, besteak beste"

Noiz sortu zen Oñatiko Musika Eskola?

Orain dela 20 urte. Ordura arte musikarekin zerikusia zuten eskolak sakabanatuta zeuden. Oñatin eskola sortu genuenean helburua zera zen: herriko kultur musika sustatzea. Harrezkero, urtez urte garatzen joan da, baina, horretarako ezinbestekoa izan da, Eusko Jaurlaritzak, Oñatiko Udalak, hainbat enpresek eta gurasoek emandako laguntza.

Zenbat irakasle diharduzue bertan?

Tituludun 14 irakasle dihardugu musika eskolak ematen, 270 ikaslerekin. Gainera, etengabeko prestakuntza jasotzen dugu, eta urte askotako esperientzia dugu. Irakasle guztiok Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailean erregistratuta gaude.

Zer eskaintzen du musikak?

Heziketa musikalak giza ahalmenak esnatu eta garatu egiten ditu. Frogatuta dago musikak arreta, kontzentrazioa, memoria, auto kontrola eta sentsibilitatea garatzen dituela, besteak beste. Era berean, hainbat ikasprozesu erraztu egiten ditu: matematika, hizkuntzak, historia, balore estetikoak eta giza baloreak, esaterako. Gainera, musikak garapen intelektualean, afektiboan, hartu-emanetan, psikomotorean, fisikoan eta neurologikoan laguntzen du.

Musika ikasteak,hasiera batean ahalegina eskatzen du, baina gero poz handia ematen du. Irakurketarekin konparatuko nuke: hasieran gogor samarra da, baina ikasi egin behar, eta gero, gaitasun horrek aberastasun handia ematen du.

Amaitzeko, esan nahi dugu, musikak gauz on asko eskaintzen dituela, eta merezi duela musika ikastea.

INFORMATIKA> IKASTAROAK

Ekainean hainbat ikastaro, KZgunean

Parte hartu gura dutenek, izena aldez aurretik eman beharko dute KZguneko bulegoan bertan

M.B. > OÑATI

Kultura etxean dagoen KZguneak hainbat ikastaro iragartzen ditu ekainerako. Ikastaroak egun bakarrekoak dira, eta jeneralean bi ordukoak izango dira.

Interneteko oinarrizko ezagutzak dituztenendako gai zehatz batzuen inguruko mintegiak egingo dituzte (ikus ondoko taula). Bestalde, ikastaroetan parte hartzeko aldez aurretik izena eman behar da KZgunean bertan, 09:00etatik 13.00etara, eta 16:30etik 20:30era.

BESTE ZERBITZU BATZUK

Ikastaroen gain KZgunean beste hainbat gauza egiteko aukera dago; besteak beste, sarean nabigatu, posta elektronikoa begiratu, IT txartelaren ziurtagiriak lortu eta elkarteendako web orriak diseinatu eta gorde.

KZ guneko mintegiak, ekainean

IKASTAROA	EGUNA	ORDUTEGIA
Sinadura elektronikoa	Ekainaren 9an	18:30-20:30
Sinadura elektronikoa	Ekainaren 20an	11:00-13:00
Sinadura elektronikoa	Ekainaren 29an	09:00-11:00
Kontsumitzailea sarean	Ekainaren 13an	11:00-13:00
Bat-bateko mezularitza	Ekainaren 16an eta 17an	11:00-13:00
Justizia ezagutu ezazu	Ekainaren 24an	11:00-12:00
Fagor Gida Gastronomikoa	Ekainaren 24an	12:00-13:00
Finantzarekin lan egin 1	Ekainaren 30ean	16:30-18:30
Finanatzarekin lan egin 2	Uztailaren 1ean	16:30-18:30

> JAIAK

Haur danborradako entseguak bihar hasiko dituzte

San Migel jaien barruan, irailaren 20an ospatuko den haur danborradako entseguak, bihar bertan hasiko dituzte. Ekainean, guztira, sei entsegu egingo dituzte; hain zuzen, bihar, eguenean eta ekainaren, 10ean, 12an, 17an eta 19an. Entseguetan parte hartu behar duten neska-mutikoei deialdia egin diete danborradako antolatzaileek, eta betiko moduan, entseguak, Errekalde Herri eskolako sotoan egingo dituzte, 19:00etatik 20:00etara.

Urtero moduan, eskoletan oporrak hartu aurretik hasiko dituzte haur danborrada prestatzen. Irailean ere entseguak egingo dituzte.

ARETXABALETA > INGURUMENA

Kontsumo jarrerekin arduratuta daude Kurtzebarriko ikasleak

Kontsumoaren gaineko hausnarketa egin dute aurten, Eskola Agenda 21 programaren bidez

Eguenean hainbat proposamen helarazi zieten alkateari eta Ingurumen zinegotziari

Osoko bilkura berezia izan zen eguenean udaletxean, udal ordezkariek eta Kurtzebarriko ikasleek osatutakoa. MIRARI ALTUBE

M. ALTUBE/M. BITERI > ARETXABALETA

Azken urteetan, Tokiko Agenda 21aren baitan, Kurtzebarri ikastetxekoak ingurumenaren aldeko jarrerak lantzen aritu dira, Eskola Agenda 21 programaren bidez. Aurten kontsumo jasangarriaren gainean jardun dute eta lan horretatik ateratako kezkak, konpromisoak eta proposamenak azaldu zizkieten ikasleek udal ordezkariei, eguenean.

Osoko bilkura egin zuten horretarako. Inaxio Garro alkatea eta Ingurumen zinegotzi Joxe Anjel Antxia izan ziren han. Kurtzebarri eskolatik, bestalde, Lehen Hezkuntzako eta DBHko 30 ikaslek parte hartu zuten.

Ikastetxe barruko eta herri mailako kontsumo jarrerak aztertu zituzten. Diagnostikoa egiteko erabilitako teknikak eta egindako irteera azaldu zituzten. Azken horren harira, besteak beste, Sasieta zabortegian, Lastur auzoko Goikola eta Arantzazuko Gomiztegi baserrian izan ziren. Azterketa egin ostean, foroa egin zutela jakinarazi zieten, hartu beharreko konpromisoak eta Udalari zuzenduriko proposamenak zehazteko.

IKASLEEN KONPROMISOAK

Konpromisoen atalak hamalau puntu ditu guztira. Hala, konpromisoak hartu dituzte ikasleek, besteak beste: zaborra dagokion zakarrontzira botatzeko, gelako materiala zaintzeko, papera aprobetxatzeko, erosketetan kontsumo ohitura egokia izateko, plastikoen erabilera gutxitzeko, produktu ekologikoenak erabiltzeko, olioa birziklatzera eramateko, argiak eta ordenadoreak behar ez direnean itzaltzeko eta erosketak egitera joan aurretik zerrenda egiteko.

UDALARENDAKO PROPOSAMENAK

Udalari egindako proposamenen artean, bestalde, sentsibilizazio kanpainak egiteko gonbita dago; baita olioa eta pilak zein poltsikoko telefonoak birziklatzeko eduki ontziak jartzeko ere. Horrez aparte, ikasleek paperaren eduki ontzia toki egokiago batean kokatzea eta zakarrontzi kopurua gehitzea eskatu diete Udalari.

Udal instalazioetan, bestalde, eguzki plakak jartzea, produktu birziklatuak erostea, egoitzetako tenperatua 20º C-tan jartzea, farolei txapelak eta aurrezteko iturriak jartzea eta argi natural a erabiltzea proposatu dute. Gainera, bildukiak gutxitzearen eta publizitatearen banaketa arautzearen alde daude.

Datorren urtean bilkura egitea adostu zuten udal ordezkariek eta Kurtzebarriko ikasleek, eguenean aurkeztutako proposamen horien berri jasotzeko.

ESKORIATZA > AZPIEGITURAK

Bide-gorria egiteko lanekin hasi dira

M.B. > ESKORIATZA

Aingeru Guarda-Sorautz tarteko bide-gorriaren lanak hasita daude dagoeneko. Bide-gorriak jarraituko duen bidea egokitzen dabiltza egunotan, arbolak eta horrelakoak mozten; geltoki zaharra eta Dorletako aparkalekuaren artean, hain zuzen. Lanek zortzi hilabete iraungo dute eta beraz, 2009ko hasierarako amaituta izatea espero du Diputazioak.

Injelan enpresak idatzi du proiektua eta Murias enpresa eraikitzaileak du lanen ardura. Tarte horrek 950 metroko luzera du eta 1.742.510 euroko aurrekontua du. Jakina denez, Aingeru Guarda ermita eta Sorautz bezala ezagutzen den eremua lotuko ditu; GI-627 errepidearen paretik joango da.

Bide-gorriak hiru metroko zabalera edukiko du eta oinezkoak eta bizikletak ibili ahal izango dira. Oinezkoek izango dute lehentasuna eta bizikletek ezin izango dute 20 kilometro ordutik gora hartu. San Juan Kalean lur azpitik pasatuko da bide-gorria.

Irudian, Aingeru Guarda-Sorautz tarteko lanak. JOSETXO ARANTZABAL

Eskoriatzatik igarotzen den bide-gorriaren bigarren tartea, bestalde, egiten noiz hasiko den zehazteke dago oraindik. Proiektua Aingeru Guarda-Sorautz tarteko enpresa berak egin du: Injelanek. Eskoriatza Arabako mugarekin lotzen du horrek; 18,8 kilometroko luzera du. Egitasmo hori aurrera eramateak 6.315.861 euro balioko du.

> ARETXABALETA

Hiri eta Landa izaerako Ondasun Higiezinen zerga uztailaren 18ra arte ordain daiteke

Gaur, astelehena, zabaldu du Udalak Hiri eta Landa izaerako Ondasun Higiezinen zerga ordaintzeko epea. Uztailaren 18ra arte luzatuko da hori. Helbideratutako erreziboak baimendutako finantza erakundeetan eta zergapekoak agindutako kontu korrontean kobratuko dira, datorren ekainaren 16an.

Helbideratu gabeko erreziboak, aldiz, zergadunak adierazitako helbidera bidaliko dira datozen egunotan, honako tokietan ordain daitezen: udaletxeko diru-bilketa bulegoan, astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 13:30era bitartean; edo entitate laguntzaileetan. Ekainaren 10erako zergadunak ez badu etxean erreziborik jasotzen, Udaleko diru-bilketa bulegoan eskatu beharko du hori.

> ESKORIATZA

Haurrendako birziklapen jaia izango da eguenean, Ingurumenaren Nazioarteko eguna dela-eta

Eguenean, ekainak 5, Ingurumenaren Nazioarteko eguna da eta hori dela-eta, Udalak haurrei zuzendutako birziklapen jaia antolatu du. Jaialdia plazan izango da, 17:00etatik 19:00etara. Umeek jolas eta jostailuak egiten ikasiko dute birzikla daitekeen materialarekin. Sei tailer izango dira guztira. Txikiendako sormen txokoaz gain, ertainendako gunean arrautza kaxa eta jogurt poteekin egindako saskiak sortzen ikasiko dute. Handienek, berriz, kartoia erabiliaz argazki markoa egingo dute; pajitekin, berriz, koilareak eta eskumuturrekoak. Horrez aparte, aldizkari eta egunkarietako paperarekin diru-zorroak egiten ikasiko dute eta baliogabeko CDekin, bestalde, peontza alaiak.

ELGETAKO > HAURRESKOLA

Osokoak haurreskolaren proiektua onartu du

Baldintza plegua ere onartu dute; Udalak nahiko luke lanak hilabeteko epean esleitzea

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Egueneko plenoan onartu zituen Elgetako osoko bilkurak bai haurreskola berriaren proiektua baita baldintza pleguak ere.

Hasiera batetik aurreikusitako epeak betetzeko lanek uztailean hasi beharko lukete eta asmoa da esleipena hilabeteko epean egitea.

Proiektua 15 egunez egongo da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean irakurgai eta lanak egiteko aurkezten diren enpresen artean bat aukeratu beharko du Udalak. Aurrekontuari dagokionez, BEZ barne, 282.942,05 euroko kopurua darabilte udaletxean.

Udaletxean ordezkaritza duten hiru taldeen aldeko botoekin onartu ziren haurreskolaren proiektua eta lanen baldintza plegua. Zerbitzu berria lehenbailehen martxan jartzeko premia ikusten dute denek ere.

ESPAZIOA BI ARETOTAN BANATUTA

Torrealdeko etxebizitza babestuetan aurreikusten du Udalak haurreskola berria egitea. Lokal handia da eta haurreskola ez ezik ludoteka eta gaztelekua ere bertan ipintzeko asmoa azaldu dute. Haurreskolak bi gela, logela, aldagela eta patioa izango ditu. Ludoteka eta gaztelekua, berriz, beste aldean eta elkarren ondoan egongo dira. Gela erabiltanitza egokituko dute bertan, besteak beste.

Udalaren asmoa da lanak abendurako amaituta egotea eta Gabonetako oporrak tresneria guztia lekuz aldatzeko erabiltzea.

Herri Eskolan ere gela beharra dute. Gero eta ume gehiago dago eta, orain arte ez bezala, kinta bakoitzak berea behar du ume kopurua dela-eta. Haurreskolak gaur egun erabiltzen duen gela, beraz, ondo baino hobeto etorriko zaie libre gelditzen bada.

Elgetako haurreskola berriarendako onartutako proiektuaren planoa. ELGETAKO UDALA

LEINTZ GATZAGA > ABEREAK MENDIAN IBILTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Ordenantzaren aldaketa eguena arte dago ikusgai udaletxean

Hainbat aldaketa proposatu zituen Udalak apirilean, eta orain arte alegazio bakarra aurkeztu diote

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Abereak mendian ibiltzea arautzen duen ordenantzaren aldaketei alegazioak aurkezteko azken eguna ekainaren 5a da, eguena. Hilabete izan dute ikusgai udaletxean, eta orain artean alegazio bakarra aurkeztu diote. Herritarrei zabalik egon den epea bukatutakoan aurkeztutako alegazioak aztertuko ditu udalbatzak. Atzera botatzen baditu alegazio guztiak, beste barik onartutzat emango dute aldaketak izan dituen ordenantza. Baina aurkeztutako alegazioren bat ontzat hartzea erabakiz gero, osoko bilkuran aurkeztu beharko dute aldaketa, eta bertan onartu.

Apirilaren 10ean egindako osoko bilkuran proposatu zuen Udalak ordenantzari hainbat aldaketa egitea. Herriko abeltzain eta nekazariekin adostutakoak dira guztiak. Aldaketarik handienak bizitokiarekin dauka zerikusia, hau da, Gatzagan erroldatuta daudenek eta bertan bizi direnek izango dute lehentasuna abereak mendira eroateko baimenak lortzeko orduan. Gainera, baimen eskaerak egiteko epea atzeratu egin gura dute azaroaren 30a arte. Udaletxean aurkeztu behar dituzte interesatuek, eta Udalak Aldundiari bideratuko dizkio.

Maiatzaren 1az gero eroan ditzakete abereak mendira baimena duten jabeek. Behiek azaroaren 30a arte egon ahal izango dute, eta behorrek, ardiek eta ahuntzek otsailaren 29a arte.

Uxarte Nekazalturismoa. GOIENKARIA

ARAMAIO> UXARTE NEKAZALTURISMOA

Uxartek Nekatur elkartearen diploma jaso du aurten ere

Nekazalturismo Elkarteak 'Kalitate Turistikoko Konpromezu Diploma' eman die 14 ostaturi, tartean Aramaioko Uxarte Nekazalturismoa

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Uxarte Nekazalturismoak *Kalitate Turistikoko Konpromezu Diploma* lortzen duen bigarren urtea da. Eusko Jaurlaritzak joan zen urtean jarri zuen martxan ekimen hau; nekazalturismo eta landetxeen gestio ona eta kalitatearekiko konpromezua saritzeko. Gotzone Larrañaga Uxarte Nekazalturismoko jabea da; pozik daude lortutako diplomarekin baina gestioa beharrean, beste kontu batzuk ere baloratu beharko liratekeela uste du: "Nekazalturismoak baserriko, landa eremuetako eta herri txikietako kultura ezagutzera emateko jaio ziren. Horrelakorik ez da aztertzen eman diguten diploma honetan. Hemen gestio da saritzen dena. Nik uste dut, gestioa garrantzitsua bada ere, badirela beste gauza batzuk nekazalturismoetan inportanteak direnak; adibidez, bezeroekiko duzun harremana".

Datorren urtean ere programan parte hartuko dutela adierazi du Larrañagak, gauza hauek publizitatea ere ematen dutelako.

ANTZUOLA > HERRIKO JAI NAGUSIAK

Jaietan marmitako lehiaketa izango da

Uztailaren 12rako afari solidarioa gertatzen dihardute Anelkar elkartekoak herriko jaiak aurrez girotzeko asmoz

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Uztailaren 17tik 20ra bitartean ospatuko dituzte jaiak Antzuolan, baina jadanik hasi dira ekintzak gertatzen eta berrikuntzarik egongo da aurten.

Egubakoitz eguerdian marmitako lehiaketa egingo dute estreinakoz. Herriko elkarteetako sukaldariek jardungo dute, baina sukaldean trebea den beste edozeinek ere parte hartu ahal izango du. Gainera, gero probatzeko emango dute marmitakoa.

Bestalde, hainbat urtetan egubakoitzetan egin izan den bertso saioa domekan egingo dute aurten.

Domeka arratsalderako, berriz, sardina jana antolatu dute eta giroa alaitzeko Benta-Zaharreko Mutiko Alaien musika izango da.

Gainontzean ohiko ekitaldiak ere ez dira faltako jaietan: kontzertuak, alardea, dantzak...

Jaiak uztailaren 17an hasi arren aurreko astean girotzeko izango da ekitaldirik. Anelkarrekoek afari solidarioa antolatzen dihardute ordurako. Asmoa da pilotalekuan afaltzea, eta ondoren, 70 eko hamarkadako guatekea egitea. Jaien aurreko domekan txirrindulari lasterketa ere izango da.

Kirola

> FUTBOLA
Txapelduna erabakitzeko lehia galdu zuen BTLS taldeak (1-0) **> 16**

> ESKOLA KIROLA
Ikasturte amaierako festa egin zuten Leintz Eskola kirolekoek **> 21**

> FUTBOLA
Andres Altzelai, Bergarako entrenatzaile ohiari elkarrizketa **> 20**

ARETO FUTBOLA > KOPAKO FINALAK

Dribling eta Carboneros taldeak nagusitu ziren kopako finaletan

Arrasateko Zaldibarreko txapelketan, Dribling taldeak partidu ona jokatu zuen eta 4-1 menderatu zuen Eskoriatzako Cipris taldea

Niu Tim taldeak lehen gola egin arren, ezin izan zuen Bergarako Labegaraietako areto futbol txapelketa irabazi, eta 3-2 galdu zuen

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Aste bukaeran jokatu dituzte Zaldibarreko eta Labegaraietako areto futbol txapelketetako kopako finalak. Hain zuzen, Arrasateko txapelketan, Dribling taldea nagusitu zitzaion Cipris taldeari, 4-1 irabazi ondoren, eta Bergarakoan, Carboneros taldeak 3-2 irabazi zuen Niu Tim taldearen kontra.

MAILA HANDIKO FINALA

Aste bukaerako lehen hitzordua Zaldibarreko finala izan zen. Arratsaldeko bostetan hasi behar zen finala Zaldibarreko pilotalekuan, baina, zapatuko euriteen erruz, antolatzaileek erabaki zuten partidua Iturripen jokatzea. "Eskerrak eman behar dizkiegu udaltzainei Iturripen jokatzeko aukera eman digutelako, bestela finala bertan behera utzi beharko genukeen", esan zigun antolatzaile taldeko Ibai Gonzalezek.

Finala beranduago hasi zen, baina berehala jarri zen aurretik Dribling taldea. Atsedenerako 3-0 ziren aurretik. Bigarren zatian, gol bat egin zuen Eskoriatzako Cipris taldeak, baina markagailua Diblingek borobildu zuen. Finala ikustera hurbildu zirenek partidu ona ikusi zuten, maila handikoa, alegia. "Cipris taldeak esperientzia falta erakutsi du. Ostera, Dibling taldea ohituta dago finalak jokatzera. Maila handia erakusten duen taldea da", esan ziguten antolatzaile taldekoek. Finala bukatu ondoren, ez zuten sari banaketarik egin, liga txapelketa bukatzen denean egingo dute-eta; hain justu ere, ekainaren 20an.

PARTIDU GARBIA

Labegaraietako areto futbol txapelketako finala atzo, 18:00etan jokatu zen. Partidu ona eta garbia jokatu zuten bi taldeek. Arrasateko Carboneros taldeak zabaldu zuen markagailua, baina Niu Tim taldeak buelta eman zion partiduari, eta atsedenera abantailarekin joan ziren, 1-2. Finala, bigarren zatian erabaki zen arrasatearren alde. 3-2 aurretik zirela, Niu Tim taldeak berdintzeko aukera garbia izan zuen, baina Carboneros taldeko atezain Igor Maniegak geldiketa ikaragarria egin zuen. "Duda barik, partiduko izarra izan da Maniega. Geldiketa onak eta erabakigarriak egin ditu, batez ere partiduko azkena. Bestalde, Niu Tim taldeko Julen Aranburuk egindako lana ere oso ona izan da, taldearen bi golak egin ditu-eta", esan zigun bukaeran antolatzaile taldeko Pedri Zafrak.

Dribling taldeko jokalariak Zaldibarreko finalaren ostean. Txapeldunaren saria ekainaren 20an jasoko dute. JOSETXO ARANTZABAL

Carboneros taldeko kideak lagunekin atzo Labegaraietan, Bergaran, irabazitako trofeoa erakusten. JOSETXO ARANTZABAL

ESANAK

"Partidu ona jokatu dute bi taldeek, baina Dribling taldeak merezimendu osoz irabazi duela esan beharra daukagu"

Ibai Gonzalez > Antolatzailea

"Oso gustura gaude aurtengo txapelketak eman duenarekin, eta, baita gaurko finalean ikusi dugun jokoarekin"

Pedri Zafra > Antolatzailea

FUTBOLA > BIGARREN ERREGIONALA

BTLSk galdu egin zuen txapeldun izateko lehia

Sanpedrotarrak taldearen aurka 1-0 galdu zuten, bigarren erregional mailako talderik onena zein zen erabakitzeko norgehiagokan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

BTLS taldeak galdu egin zuen denboraldia borobiltzeko azken norgehiagoka; hain zuzen, bigarren mailako talderik onena zein zen erabakitzen zuen partidua. Zumaiako Aita Mari futbol zelaian, Sanpedrotarrak taldea izan zen indartsuagoa, eta 1-0 irabaziz eroan zuen txapeldunaren saria. Bergarako taldeak, bigarren sailkatuaren kopa jaso zuen.

BTLS taldeko jokalariak, partidu bukaeran jasotako koparekin. JOSE LUIS BEITIA

JOKALARI GUTXIREKIN

BTLSk hamahiru jokalari bakarrik zituen zapatuko partiduari aurre egiteko. Dena den, lehen zatia nahiko parekatua izan zen.

Lehia bigarren zatian erabaki zen. Sanpedrotarrak taldeak penalti bidez egin zuen gola, eta jokaldi berean, bergararrak jokalari bat gutxiagorekin geratu ziren. Azkeneko minutuetan, berdinketa lortzeko aukera gutxi izan zituen BTLS taldeak.

TXIRRINDULARITZA > DEIALDIA

Elgetako mendi kriteriumari buruzko batzar berria, gaur

Probaren gaineko azken erabakia hartuko dute 19:00etako bileran

M.B. > ELGETA

Elgetako Txirrindulari Taldeak erabakiko du gaur, mendi kriteriuma antolatzen duen edo ez. "Egubakoitzean egindako bileran gazte talde bat prest agertu zen antolakuntzan laguntzeko", esan du taldeko presidente Emilio Mandaluniz, "baina, dei berria egin nahi diegu, erreleboa emateko gertu daudenei: 19:00etan bilduko gara azken erabakia hartzeko. Dena den, uste dugu, aurten behintzat, kriteriuma egin ahalko dugula".

Egun, lau lagunek dihardute proba antolatzeko lanetan eta Udalaren babesa badute, diru sail bat lasterketarako gordeta dute-eta.

Bestalde, Elgetako txirrindulari taldeak hartuta dauka federazioaren egutegian proba egiteko eguna. Hain zuzen ere, uztailaren 20a.

> IZENEMATEA

Bihartik aurrera eman daiteke izena berriro, Behobia-Donostiarako

Azken egunotan etenda egon da Behobia-Donostiarako izenematea arazoak izan dituztelako zerbitzariarekin. Arazoak konponduta, bihar, 12:00etatik aurrera eman ahalko da izena azaroaren 9an jokatuko den probarako. Oraingoz, 5.500 izen jaso dituzte, *www.behobia-sansebastian.com* helbidean.

> EMANALDIA

Alberto Iñurrategiren azken filma, gaur, Amaia antzokian

Alberto Iñurrategik *Begiz begi* izeneko filma eskainiko du, gaur, 20:00etan, Amaia Antzokian. Hain zuzen, Aretxabaletako mendizalearen hirugarren filma da eta lehenengoz erakutsiko du Debagoienean.

Bihar, berriz, Pakistanerako bidea hartuko du, G4 mendia igotzeko helburuarekin.

CREDIKUTXA AUTOMOBILA

*%7,471ko UTB

*Hilean 69,67€ bakarrik

Interesa ikusita autoa aukeratzea da zure egiteko bakarra.

Familiarra, coupea, monobolumena… autoa erosteko unean, modeloa eta marka aukeratzea izango dira zure kezka bakarrak.
Credikutxa Automobilak eskaintzarik onena eskura jartzen dizulako: **%7ko interesa** 10 urterako 6.000€ kredituarentzat, hileko 69,67€ kuotarekin, eta %7,471ko UTBa.
Argibide guztiak, **Kutxanet**-en edo, bestela, zure **ohiko bulegoan** jasoko dituzu.

%0,50eko hobaria, CO_2 gutxi isurtzen duen autoa izanez gero

P.A.G.V.08/02/07

credikutxa

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

DESKONTU OPERAZIOA

Carrefour

www.carrefour.es

Maiatzaren 29tik ekainaren 10era

Bermatua:
%10etik
%80ra
arteko deskontua
zure marka gustukoenen 10.000
produktu baino gehiagotan.

EXPO ZARAGOZA 2008

Orain hurbilago

Carrefour Gorbeia

FORMAZIOA > MOJATEGIN

Luxuzko entrenamendu saioa Mojategi zelaian

Biarritz Olympique taldeko entrenatzailea den Patrice Lagisquet izan zen Mojategin eguenean

Helburua entrenatzaile eta jokalariei formazioa ematea zen; Arrasate eta ingurukoak egon ziren

Patrice Lagisquet egueneko saio hasieran ariketak azaltzen. ARANTZAZU EZKIBEL

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Puntako entrenamendu saioa izan zuten eguenean Arrasateko eta inguruko herrietako errugbi elkarteetako jokalari eta entrenatzaileek. Puntako izan zen, entrenamendu saio gidatzen munduko txapeldunorde izandako Patrice Lagisquet Frantziako jokalari ohia egon zelako.

Gainera, harekin batera beste hainbat jokalari eta arduradun garrantzitsu etorri ziren. Denak iparraldetik, gainera. Mojategin izan ziren, besteak beste: Bayona taldeko Francis Leta; Stjean de Luz taldeko Bernard Daguerre; Naffaroa taldeko Spring Sean, eta, Academia Vasca elkarteko Albin Lhoste.

Entrenamendu saioak zuen garrantzia ikusita, Arrasateko Errugbi taldeko entrenatzaile eta jokalari asko elkartu ziren Mojategin; hainbat infantil, senior mailako 15 mutil eta baita emakumeen taldeko 10 neska ere. Gainera, Arrasaten errugbian ibilitako hainbat lagun harmailetan egon ziren entrenamenduaren nondik norakoak ikusten. Bada, egoerak merezi zuen.

Arrasateko taldeaz gain, Hernaniko eta Durangoko jokalariak ere etorri ziren Mojategira eguenean.

Joseba Zabala Arrasate errugbi taldeko kideak azaldu du jokalari eta entrenatzaileak gustura geratu zirela entrenamendu saioarekin: "Hizkuntza izan zen arazo bakarra, baina, azkenean ondo moldatu ziren". Entrenamendu saioaren ondoren Musakolako San Isidro elkartean afaldu zuten; eta, handik Iparralderako bidea hartu zuten. "Mundu mailan jokalari garrantzitsua izan da Lagisquet; onenetarikoa", gogoratu du Zabalak.

EUSKAL AKADEMIA

Entrenamendu saioa Euskal Akademiak antolatutako formakuntza ikastaroen barruan kokatzen da; eta, Arrasatekoa, azken saioa izan zen. Gainera, errugbiko Euskal Akademiak gonbidapena luzatu zuen azken entrenamendu saiora inguruko jokalariak zein entrenatzaileak joateko. Helburuak, jokalari bakoitzaren gaitasun pertsonalak lantzea eta taldeko erasoa hobetzea ziren.

GIPUZKOAREKIN ZORRA

Arrasateko arduradunek azaldu bezala, Biarritz bezalako talde bat hain kilometro gutxira izatea "luxu" bat da. Gainera, Biarritzeko arduradunek beti esan izan dute Gipuzkoarekin zorretan daudela Anoetan behin baino gehiagotan jokatu izan dutelako euren partiduak.

Hala, Euskal Akademiak emandako aukera aprobetxatu dute zor hori kitatzeko. Pilota, golfa, surfa baina, batez ere, errugbia landu gura dute Euskal Akademian. Eta, errugbian Iparraldeko taldeak Hegoaldekoak baino indartsuagoak direla kontuan hartuta, Iparraldeko hainbat entrenatzaile ibili dira hegoaldean eskolak ematen.

A.E.

Patrice Lagisquet > Biarritz Olympique-ko entrenatzailea

"Errugbia asko aldatu da azken urteetan; orain, fisikoki hobeto prestatuta daude"

A.E. > ARRASATE

Egungo Biarritz Olympique-ko entrenatzalea da Patrice Lagisquet (Arcachon, 1962). Aurretik, baina, jokalari garrantzitsua izandako da. Munduko txapeldunorde izan zen 1987an eta 1988an Bost Nazioak txapelketa irabazi zuen Frantziako selekzioarekin.

Ze entrenamendu mota lantzera etorri zara Arrasatera?

Gaurko entrenamendu motan, gehienbat teknika indibiduala landuko dugu. Lehenengo hainbat ariketa egingo ditugu; horietan, kontrola, pasea, sostengua... landuko ditugu. Gero, taldeka banatuta, talde nagusitasuna landuko dugu.

Urteak dira errubian zabiltzala. Asko aldatu da errugbia azken urteotan?

Bai, asko gainera. Beharbada, teknika aldetik ez da asko aldatu baina fisikoa asko aldatu, da. Orain denbora askoz gehiago jokatzen da; hortaz, fisikoki hobeto prestatuta egon behar dute.

Jokalari edo entrenatzaile, non gusturago?

Bi gauza oso ezberdin dira. Nik bietan oso ondo pasa dut. Lehen jokalari moduan eta orain entrenatzaile bezala. Oso ezberdinak dira. Jokalari bezala gehiago ikusten duzu zure lana eta zuk egiten duzuna. Entrenatzaile bezala, ostera, talde lana ikusten duzu. Jokalari bati erakustea eta jokalari horren eboluzioa ikustea oso polita da. Gainera, garaipenak taldearekin beste modu batera partekatzen dira.

Nola ikusi dituzu Arrasateko instalazioak?

Instalazioa bisitatzen egon gara eta oso ondo dagoela iruditu zait.

X. NAZIOARTEKO TXAPELKETA

Zazpiko errugbi txapelketa datorren zapatuan

Datorren aste bukaeran, hain zuzen, hilaren 7an jokatuko da Arrasateko X. Zazpiko errugbi txapelketa. Aurten, txapelketak Mojategiko instalazio berriak estreinatuko ditu. Baina, beste berritasun bat ere izango du: aurten, emakumezkoen kategoriako txapelketa jokatuko da.

Gizonezkoen eta emakumezkoen txapelketak zapatu arratsaldean jokatu dira: 15:00etan hasiko dira partiduak eta finala 19:00etan izango da. Sari banaketa, 20:30etan egingo da plazan egongo den karpan. Txapelketan parte hartuko duten taldeak bederatzi izango dira: Arrasate, Bera Bera, La Unica, Ordizia, Zarautz, Hernani, Gaztedi, Burdeos 1 eta Burdeos 2. Baliteke, gaurtik eta zapatura arte aldaketaren bat egotea. Nesketan, Arrasate, La Unica, Atletico San Sebastian, Durango eta Mungia lehiatuko dira. Getxok ez dela etorriko esan du; baina, baliteke gazte mailako neskekin etortzea azken momentuan.

Bestalde, zapatu goizean kadete mailako txapelketa jokatuko da. Lehenengoz jokatuko da gazte mailako txapelketa Arrasateko txapelketan.

Baina, lehia ez da izango aste bukaerak emango duen bakarra. Izan ere, herriko plazan X. Garagardo festa ospatuko da; eguenean irekiko ditu ateak zapatura arte iraungo du. Plazan ipiniko den karpako giroa indarberritzeko, txapelketan parte hartuko duen talde bakoitzari karpan erabiltzeko bonuak emango zaizkio. Gainera zuzeneko musika emanaldiak egongo dira. Karpan, hainbat zerbeza mota, saltxitxak eta txerriukondoa dastatzeko aukera egongo da.

Andres Altzelai > Bergarako entrenatzaile ohia

"Gutxienez, preferente mailan egon beharko litzateke Bergarako taldea"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Oraindik gordeta dauka diru-zorroan entrenatzaile karneta, 1968ko datarekin: "Honi esker batek baino gehiagok entrenatu ahal izan du Bergara...". Andres Altzelaik (Bergara, 1925) entrenatzaile sena izan du beti. Aspaldi erretiratuta, Bergara KEren omenaldia jaso zuen apirilean.

Andres Altzelai, ilobekin, joan den apirilaren 26an Agorrosinen egiten zioten omenaldiaren aurretik, entrenatzailearen aulkian. JOSETXO ARANTZABAL

Nola hasi zinen entrenatzaile?

Jose Mari Gallastegi taldeko presidenteak eskaini zidan postua, 1950eko hamarkadan. Donostiara, Atotxara, joaten nintzen eguenetan entrenatzaile titulua ateratzera eta Benito Diaz ospetsua izan genuen irakasle. Orduko oso oroitzapen onak dauzkat. 25 urterekin hasi nintzen entrenatzen. Entrenatzaile gazteena nintzen sasoi hartan... Orain, berriz, zaharrena...

Aurretik, baina, Bergarako jokalaria izan zinen...

Bai, hala da. Zelai erdian jokatzen nuen. Atzean bi defentsa, erdian hiru eta aurrean bost jokalari jokatzen genuen orduan. Horixe zen erabiltzen zen sistema: 3-2-5. Izan nituen Bergaratik ateratzeko pare bat proposamen baina azkenean ez ziren gauzatu.

Zer gertatu zen ba?

Valladolid taldearekin joan nintzen probatzera. Helenio Herrera ospetsua zen taldeko entrenatzailea. Hilabete eman nuen Valladoliden, baina azkenean ez ninduten hartu. Gero, Santanderreko Racingen eskaintza jaso nuen. Hiru urteko kontratua eskaintzen zidaten, baina ama bakarrik zegoen Bergaran, aita ordurako hilda zegoelako, eta gozotegia aurrera atera beharra zegoen... Ezin izan nintzen Santanderren geratu. Edozelan ere, ez naiz ezertaz damutzen. Berriz jaioko banintz, izan dudan bizitza errepikatzea nahi nuke.

Eta Bergarako taldearekin une gozoak bizi izan zenituen...

Bai, 1958an Michelini irabazi genion Atotxan, eta 3. mailarako igoera lortu genuen. Urte ederrak izan ziren haiek. Beste hiru final jokatu genituen..., tartean Sanseren kontra Bergaran jokatu genuena. Realaren bigarren taldeak sekulako ekipoa zuen, baina husnakoari eutsi genion, ia amaierara arte. Oregi atezaina lesionatu egin zen eta bi gol egin zizkiguten amaieran. Sasoi baten lehen mailan jokatzen zuten bi atezain bergararrak ziren: Oregi, Las Palmasen, eta Mujika, Atletico de Madriden.

Zein izan da zure aginduetara izan duzun jokalarik onena?

Asko izan ditut onak, baina Pablito Gallastegi zena nabarmenduko nuke; txikia izan arren, jauzi itzela zeukan eta buruz primeran errematatzen zuen. Abila eta azkarra, Diaz de Zerioren estiloko golegilea zen. Nastic eta beste hainbat taldetan bikain aritu zen.

Zer behar du entrenatzaile on batek?

Jokalariak konforme izatea, jokatzen dutenak eta besteak. Nik ere eztabaida onak izan ditut hainbat jokalariren aitekin... Norberaren herrian entrenatzaile izatea, *malo*. Baina futbolak ez dauka misteriorik: eman 11 jokalari on eta nahiko. Teoria gehiegi dago futbolaren inguruan.

Zuek beste modu baten biziko zenuten futbola...

Bai, Espoloian edo Plazako azokan entrenatutakoak gara, eta begira zer nolako instalazioak diren gaur... Giro sanoa zegoen lehen... Hala ere, ez dizut ukatuko epaileak erosten zirela noizean behin... Dena den, Bergaran futbolarekiko interes falta sumatu izan dut beti Udalaren partetik. Begira non gauden orain... Eibar, Tudelano edo Burgos hemen jokatutakoak dira eta orain Antzuolaren kontra jokatzen gaude... eta galtzen. Gutxienez, preferente mailan egon beharko genuke, ibarreko beste taldeen aurka jokatzeko eta giroa pizteko.

Reala, igoko da?

Zaila dauka... Eta hurrengo urtean maila hobea izango da, Zaragozarekin, Levanterekin...

1950eko hamarkadan taldearen urrezko aroa ezagutu zuen entrenatzaile beteranoa

Andres Altzelaik ibilbide luzea egin du futbolean. 20 urte inguru eman ditu Bergarako entrenatzaile, sasoi ezberdinetan, eta Bergara KEren unerik gozoenetakoak bizi izan ditu. Gozogilea izanda, normala. 1952an Bergara sortu zenean, taldeko jokalarietako bat zen (ondoko argazkian). Altzelairen eskutik hasi zen taldearen gorakada, 1955-56 denboraldian: lehen erregional mailan bere multzoko txapeldun izan zen Bergara. 1958ko San Sebastian egunaren bezperan, 3. mailarako igoera lortu zuten Atotxan, Lasarteko Michelin taldeari irabazita. 1961ean, berriz, Gipuzkoako Kopa irabazi zuten Beasainen, Legazpiko Ilintxaren aurka. 1964an, 3. mailarako igoera partiduan, galdu egin zuten mahoneroek Villafrancaren aurka Atotxan (1-0).

1980ko hamarkadara arte Bergarako futbolaren alde lanean jardun zuen Altzelaik. Hainbat omenaldi jasotakoa da: 1977an, Martin Beitia, Bittor Ibartzabal *Karloskua*, Kruz Jauregi eta Joakin Zurututzarekin batera, taldearen errekonozimendua jaso zuen. Azkena, apirilaren 26an, Agustin Arantzabal eta Jose Mari Albisuarekin batera. Futbola zainetan darama. Pena ematen dio Bergara lehen erregional mailan ikusteak eta Realarekin ere sufritzen du. "Oso zaila dago igoera, are gehiago Salamancaren aurka berdindu eta gero. Lillo? Gehiegi egiten du berba..."

Bergara futbol taldea 1952an. Altzelai zutik, hirugarrena ezkerretik hasita. BKE

ESKORIATZA

Azken Jaia eta sari banaketa Eskoriatzan egin zituzten

PLAZA GAINEZKA Eskoriatzako plaza neska-mutikoz beteta egon zen zapatu eguerdian; saria nahi zuten guztiek

DENBORALDI AMAIERA Leintz bailarako gaztetxoek denboraldi amaierako kopak eta dominak jaso zituzten

OPARI ASKO Bizikleta bat, patinak, kamisetak, baloiak... Opari asko zozketatu zituzten Eskoriatzan

NEREA MENOR > BERGARA

Joan den zapatuan amaitu zen Eskola kirola Leintz bailarako umeentzat. Kurtsoa hasi zenetik ia zapaturo bildu dira Iturripen, saskibaloian, eskubaloian eta abarretan aritzeko, baina joan zen maiatzaren 24an azken partidua jokatu zuten, iraila arte.

Denboraldiari amaiera emateko Azken Jaia ospatu zuten, zapatuan. Goizeko 10.00etan 1.maila eta 4.maila bitarteko neska-mutikoak Luis Ezeiza eskolako jolastokian bildu ziren patinaje jolasetan aritzeko. Lehen Hezkuntzako 5.maila eta DBHko 2.maila artean ikasten dihardutenak bizikleta martxa egin zuten. 09:30ean hasi zen martxa Aramaion, eta Arrasate eta Eskoriatzatik pasa ostean, Aretxabaletan bildu ziren txirrindulariak, guztiak batera, bide gorritik Urkulura igotzeko.

Hilabete askotan Eskola Kirolean aritu izan dira gaztetxoak eta gogo guztia jarri dute zapatuko ekintzetan. Guzti hau, arro egoteko arrazoia da, baina arduradunek haratago joan nahi izan zuten zapatuan, eta 12:00etan, Eskoriatzako plazan, sari banaketa ospatu zuten. Askok sariak lortu zituzten eta hori gutxi balitz, oparien zozketa ere egon zen..

LASTER OPORRAK

Denboraldi osoan zehar gurasoek oso leku garrantzitsua izan dute zapatuko ekintzetan. Sari banaketan monitore eta gurasoentzako aipamen berezia egon zen zapaturo eskaintzen duten laguntza eskertzeko.

N.M.

Almen 3A. Aurrekiroleko 3.mailako mutil txapelketan lehenengo sailkatuak izan ziren Almenekoak.

N.M.

Santa Teresa A. Aurrekiroleko 3. eta 4.mailako nesken txapelketan lehen sailkatuek.

N.M.

LEK A. Arrasateko saskibaloi taldeetako partaideen artean lehen sailkatuak.

N.M.

LEK A. Saskibaloian jokatu duten Arrasateko mutilen artean lehenengo sailkatuak izan ziren.

ZOZKETATZEN DIREN SARIETATIK ZEIN LORTU NAHI DUZUE?

June Narzabal eta Nerea Pabo
Almen

Eskoriatzako plazan aurkitu genituen bi neska hauek. Irristaketan ibili ondoren sari banaketa ikustera joan ziren plazara eta opariren bat irabazteko gogoa ere bazuten."Nik bizikleta irabazi nahi dut eta Nereak patinak nahi ditu. Asko gustatzen zaigu irristaketan aritzea baina, baita areto futbolean jokatzea ere. Oraindik ez dakigu saririk jasoko dugun, baietz espero dugu".

Ander Zubia eta Manex Larzabal
Almen

Ander eta Manex adi-adi daude Eskoriatzako plazan dagoen eszenatokira begira. Bertan arrapatu genituen eta sari eta oparien inguruan galdetu genien. "Hor dagoen bizikleta asko guztatzen zait niri, baina Tauren kamiseta ere asko gustatzen zaigu, izan ere saskibaloia gustatzen zaigu eta TAUren jarraitzaileak gara. Futbola ere gogoko dugu eta eskubaloian jolasten dugunean askotan irabazi egiten dugu".

Danel Beloki eta Unai Etxebarria
Almen eta Luis Ezeiza

Danel eta Unai Urkularaino joan eta Eskoriatzara bueltatu ziren zapatuan. Txirrindulari lasterketan hartu zuten parte eta oraindik kaskoa buruan zutela berba egin zuten". Askotan ibiltzen gara bizikletan eta lagunekin mendira ere joaten gara txirrinduarekin. Futbola eta pelota ere asko gustatzen zaizkigun kirolak dira. Gaurko oparien artean bizikleta eskuratzea gustatuko litzaiguke".

Mundumira
munduko kulturen festa
ekainak 6/7/8
Bergara-Debagoiena

Munduko musika (Alpha Blondy, Tsaha´a World, Oreka TX, 08001, Derviches del Cairo,..), eskualdeko taldeak (Belceblues, Mahaster River) mendi ibilaldiak, kultur ibilaldiak, BTT frogak, senderismoko azoka, artisautza azoka, kale animazioa, elkartasun foroa,...

Erabili garraio publikoa!
Autobus zerbitzu bereziak!

Informazio gehiago:

www.pesa.net
902 10 12 10

www.turismodebagoiena.com
943 79 64 63 • 943 71 89 11

www.mundumirafesta.com

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
TURISMO

ZAHARRAK BERRI SAIOA

Aste honetan:

zaharrak BERRI

NOIZ:
ekainak 4 eta 5

GAIA:
Oñatiko erretiratuen asteko ekintzak

Zure intereseko **elkarrizketak, erreportajeak** eta **tertuliak** batzen dituen programa berria daukazu **GOITBn**

EGUAZTENETAN **20:15**ean
EGUENETAN **13:15**ean

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara,
SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!
Deitu programan zehar **943 00 08 34** telefonora

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Babeslea: kutxa URREZKO ZERBITZUA

> ANTZERKIA
Amaia Cid aktore oñatiarra, 'Figaro' antzezlaneko protagonista **> 23**

> ELKARRIZKETA
Josemari Velez de Mendizabalekin izan gara aste bukaeran **> 27**

> TELEBISTA
Amaia Txintxurreta, gustura telebista eta kantua uztartu ahal dituelako **> 29**

EL PUCHERO DEL HORTELANO Granadako flamenko-rock taldeak kontzertua eskaini zuen egubakoitzean Arrasateko 3.60 aretoan. JOSETXO ARANTZABAL

Flamenkoa, rocka eta txaloak El Puchero del Hortelanorekin

'Harumaki', laugarren diskoa aurkezteko bira egiten dihardu talde granadarrak

Flamenkoa onarri gisa hartuta, popa, rumba, funkya, rocka eta jazza uztartzen dituzte

ARRITXU BARRUSO > ARRASATE

El Puchero del Hortelano talde granadarrak Arrasateko 3.60 aretoko giro hotza berotzea lortu zuen egubakoitzean. Lehenengo saiakerak huts egin zuen arren, bigarrenez eskatuta, jendea taula aurrera hurbiltzea lortu zuten. Bizpahiru kantu nahikoak izan ziren ikusleak txaloka eta dantzan ipintzeko.

Ez da batere erraza Granadako seikote honen estiloa zehaztea. Flamenko fusio gisa definitzen dute askok. Duda barik, flamenko doinuak dituzte oinarri. Baina, ordu eta hiru ordu laurden iraun zituen kontzertuan rock, rumba, funky, jazz eta pop estiloko doinuak entzuteko aukera izan zen egubakoitzean.

Gitarra klasikoa, gitarra elektrikoa, baxua, saxofoia, tronpeta eta perkusioa erabiltzen dituzte nahasketa hori lortzeko. Bira honetan, gainera, badute berrikuntzarik. 2006an Carles Lloveras gitarra-jotzaileak taldea utzi zuen eta Patricia Ramosek hartu dio lekua. Behin baino gehiagotan aho zabalik utzi zituen Cadizeko neska gazteak 3.60 aretora joandakoak, gitarra klasikoa jotzeko daukan abileziarekin.

'HARUMAKI'

El Puchero del Hortelano taldeak laugarren diskoa atera berri du kalera, *Harumaki* izenburupean. Hamaika abestik osatzen dute azkeneko disko hori.

Asuntos serios single-arekin aurkeztu zuten euren laugarren diskoa eta sekulako arrakasta lortu zuten. Orain bigarren *single*-a, *Tu eres eso*, aurkezteko bira egiten dihardute.

3.60 aretoan ere argi ikusi zen ikusleak abesti bi horiek entzuteko irrikan zeudela. Dantza eta txalo mordoa eragin zituzten bereziki abesti horiek.

Euskal Herrian flamenko txaloak jotzeko abilezia handiegirik ez dagoela ere argi ikusi zen egubakoitzeko kontzertuan. Ez behintzat, eurak egiten duten artearekin. Baina saiatu, saiatu ziren El Puchero del Hortelano ikustera joandakoak, eta hori da garrantzitsuena. Batzuk hobeto, beste batzuk okerrago, baina,txaloak eta flamenko estiloko dantzak izan ziren nagusi 23:30ak eta 01:15ak bitartean 3.60 aretoan.

Bilbon bi kontzertu eta Iruñean beste bat eskani ostean, Katalunian jarraituko du bira El Puchero del Hortelanok.

Amaia Cid > Aktorea

"Kosta egin zitzaidan Susanaren pertsonaia bereganatzea hasieran"

ARRITXU BARRUSO > OÑATI

Ortzai antzerki taldeak *Figaro-Garate, las bodas de Figaro* antzezlana eskaini zuen egubakoitzean Oñatiko Santa Ana aretoan. Protagonistetako bat Amaia Cid oñatiar aktorea da. Komedia garratza, kritikoa eta dibertigarria dela azaldu digu.

Zein da *Las bodas de Figaro* antzezlanarekin eskaintzen duzuen istorioa?

Agustin Caron de Beaumarchaisek XVIII. mendean idatzitako lan bat da. Bertan kontatzen da nola Figaro eta Susana ezkontzekoak diren. Kondeak baina, traba ugari ipini nahi ditu ezkontza hori ekiditeko. Egun handiaren bezperan, kondeak lehendabiziko gaua, senargaiarekin beharrean, berarekin igaroko duela esaten dio Susanari. Figarok eta Susanak, baina, ahalegin guztiak egiten dituzte hori gertatu ez dadin. Bere garaian kritika gogorrak jaso zituen, esaterako, Luis IV.aren partetik eta ezin izan zen antzeztu. Napoleonek esan zuen iraultzaren germenak ere bazituela lan honek.

Ze emozio eragiten ditu antzezlan honek ikuslearengan?

Antzezlan honek mezu garrantzitsu bat eskaintzen du; guztiok zoriontsu izateko bidea aurkitzen dihardugula une oro. Berez, komedia moduan dago idatzita, baina benetako drama bat da. Pentsa ezazu zer den konde bat horrelako neskatila gazte baten atzetik ibiltzea. Gainera, gaur egun ere, ikusten dira horrelako gauzak zoritxarrez. Esango nuke zentzu horretan baduela gaurkotasun kutsu bat.

Protagonistaren, Susanaren, papera egiten duzu antzezlanean. Nolakoa da Susana?

Susana arratoitxo bizi baten modukoa da. Oso pertsonaia dibertigarria da, beti dago pozik eta oso alaia da. Ez da izan oso erraza hori interpretatzea, egia esan.

Zer izan da gehien kostatu zaizuna?

Lehen esan bezala antzezlana goi mailako komedia bat da. Beraz, forma aldetik orain arte egin ditudan lanen oso desberdina da. Ez da fartsa, ez da drama, ez da tragedia… Egia esan, forma aldetik hasiera batean kosta egin zitzaidan Susanaren pertsonaia bereganatzea. Erronka bat izan da niretako, baina, nik uste dut lortu dudala.

"Orain arte egin ditudan lanen oso desberdina da; ez da fartsa, ez da drama, ez da komedia..."

"Kritika gogorra jaso zuen. Napoleonek esan zuen iraultzaren germenak ere bazituela"

Zer suposatu du zuretako lan hau lehenengo aldiz Oñatin antzezteak?

Hasieran oso trankil nengoen etxean nengoelako. Baina, antzezlana hasi baino hamar minutu lehenago oso urduri jarri naiz. Ez dakit zergatik. Taula gainera igo naizenean, gero, pasatu egin zait. Gainera, beti esaten den moduan, urduritasun bat beharrezkoa da lana ondo egiteko.

Gustura egindako lanarekin?

Bai. Oso pozik. Uste genuena baino hobeto irten da. Entseguak ez dira oso ondo izan oso urduri geundelako. Baina, gero, dena oso ondo joan da.

Familiarteko eta lagun asko etorri al dira?

Bai. Jende dezente etorri da. Asko gustatu zaie eta barre asko egin dutela uste dut. Gurasoak, esaterako, ez naute taula gainean askotan ikusi. Baina, oso pozik daude aukeratu dudan lanarekin.

Amaia Cid oñatiarra da antzezlanaren protagonistetako bat, Susana. AMAIA CID

OÑATI > LOS CRETINOS, DISCIPULOS DE DIONISOS, ANESTESIA ETA LATZEN KONTZERTUAN ERREKALDEKO JAIETAN

Latzenen jarraitzaileek zaparradari kasu egin gabe gozatu zuten kontzertuaz

Anestesia taldeak Oñatin jotzen zuen lehenengo aldia zen; baita Latzenekoak ere itzuli direnetik

Gazte eta nagusi, adin guztietako jendea hurbildu zen egubakoitzean Errekaldeko kontzertuetara

ANESTESIA Talde zarauztarrak Oñatin jotzen zuen lehenengo aldia zen. J. ARANTZABAL

A. B. > OÑATI

Errekaldeko jaiek aurten musika egitarau indartsua izan dute. Egubakoitzean Los Cretinos, Discipulos de Dionisos, Anestesia eta Latzen taldeek kontzertua eman zuten. Ikusmin handia sortu zuen kontzertua izan zen. Izan ere, Anestesia talde zarauztarrak Oñatin jotzen zuen lehenengo aldia zen. Latzenekoek ere euren herrian kontzertua eskaintzen zuten lehenengo aldia zen, taldea taula gainera itzuli zenetik.

Arrasateko Los Cretinos taldeak ireki zuen kontzertua. Punk kutsudun rock and rolla egiten duen taldeak oraingoan ere kontzertu dibertigarria eskaini zuen.

Discipulos de Dionisos talde donostiarra izan zen taula gainera igotzen bigarrena. Euren estiloa porno punk gisa definitzen dute donostiarrek; punk azkarra egiten dute eta euren abestiak sexua eta pornoarekin zuzenki lotuta daude. Ohiko ikuskizuna eskaini zuten Discipulosekoek.

Giroa berotuta zegoen Anestesiakoen txanda iritsi zenean. Oñatiarrak irrikan zeuden talde zarauztarra etxean entzuteko, eta erantzuna sekulakoa izan zen. Ordu eta erdi iraun zuen kontzertuan, abesti zaharrak eta *Terapia* disko berrikoak tartekatu zituzten.

Oñatiarrek horrenbeste itxoindako momentua 01:30ak inguruan iritsi zen. Euri tantak gero eta indartsuagoak ziren Lantzenekoak taula gainera igo zirenean. Euriak, baina, ez zituen Latzenen jarraitzaileak kikildu eta erantzuna erabatekoa izan zen. Ia bi orduko kontzertua eskaini zuten, eszenaratze txukunarekin eta argi askorekin.

PLAZATIK GAZTETXERA

Jokin Labayen txapeldun

A.B. > BERGARA

Jokin Labayen bertsolari arrasatearrak txapela lortu zuen Mutrikun zapatuan, Plazatik Gaztetxera lehiaketako finalean. Jone Uria bizkaitarrarekin jardun zuen buruz buru eta azkenean arrasatearrak lortu zuen txapela. Ofizioetan ere txukun aritu zen Labayen.

Jokin Labayen. ARTXIBOA

UDESIGN-SHOP.COM

Juan Carlos Guerra Plaza – Arrasate – 902 540 071







Dekorazioa
Proiektuak
Erreformak
Erraztasunak ordaintzerako orduan

Bisita ezazu gure webgunea

www.udesign-shop.com

ibai-arte

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Ekaineko zozketa

PARTE HARTZEKO

SMS 5533
harpidetza@goiena.com
Tel.: 943 08 10 50

CANON KAMERA

Bidali AG KAMERA 5533 zkra

KAMISETA + POLTSA

Bidali AG KAMISETA 5533 zkra

ZIRA + KAMISETA

Bidali AG ZIRA 5533 zkra

KAMISETA+URTEBETERAKO HARPIDETZA+ALDIZKARI SORTA

Bidali AG MUNDUMIRA 5533 zkra

SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

GETARIAKO ASTILLERO JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO BAZKARIA

Zozketan sartuko dira: 08-05-19tik 08-06-04ra jasotakoak

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena getionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

ASTE BUKAERA...

Josemari Velez de Mendizabalekin

Josemari Velez de Mendizabal, zapatuan, Arantzazuko Gandiaga Topagunean egon zen bilera batean. JOSETXO ARANTZABAL

"Aste bukaeran bilerarik ez dudanean, Ulibarri-Ganboako etxera joaten naiz"

Bela egitea eta idaztea gustatzen zaizkio Eusko Ikaskuntzako zuzendari kudeatzaileari

Seme-alabak hazita dituenez, denbora librea duenean emaztearekin ibiltzea gustatzen zaio

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Josemari Velez de Mendizabal (Aramaio, 1949) Eusko Ikaskuntzako zuzendari kudeatzailea eta idazlea da. Eusko Ikaskuntzak bulego orokorrak Donostian ditu, eta hiru egunetan, bertan egoten da lanean. "Edozein enpresatan egiten diren lanak egiten ditut, besteak beste, hausnarketa planak egin, etorkizuneko helburuak, eta eguneroko lanean behar diren baliabideak zehaztu. Hitz batean esateko, kudeaketa lana egiten dut; hain justu ere, giza baliabideak, teknikoak, eta ekonomikoak kudeatzen ditut", esan digu Josemari Velez de Mendizabalek. "Eusko Ikaskuntza hainbat adar dituen enpresa da,besteak beste, Asmoz Fundazioa daukagu, Internet bidez formazio birtuala ematen duena, eta Eusko Media fundazioa. Guztira, 60 bat lagunek egiten dugu lan".

Donostiako bulegoan ez dagoenean, Bilbon, Gasteizen, Baionan edo Iruñako bulegoetan egoten da bileratan. Baina, lo egitera, Arrasatera etortzen dela esan digu. "Azken 35 urteotan etxeko ohean egin dut lo, eta horrela jarraitu nahiko nuke".

ORDU ASKO LANEAN

Astelehenetik egubakoitzera zenbat ordu lan egiten duen galdetzerakoan zera esan digu: "Ez dakit zenbat ordu egiten dudan lan, baina zenbatzen hasita, ziur nago, ni neu ere harritu egingo nintzatekeela. Oso goiz hasten naiz eta oso berandu bukatzen dut". Horregatik, aste bukaerako orduak aprobetxatzen ditu gehien gustatzen zaizkion gauzak egiteko. "Dena den, aste bukaera batzuetan lana egitea tokatzen zait; adibidez, zapatuan laneko bilera bat izan genuen Arantzazun, eta beste batzuetan, omenaldiren bat dagoenean ere, bertan parte hartzen dut. Zorionez, aste bukera guztiak ez dira berdinak izaten".

Debagoienean itsasorik ez dagoen arren, Ulibarri-Ganboan (Araba) bela egitea gustatzen zaio. "Nire bigarren etxea da. Aste bukaerak libre ditudanean Ulibarri-Ganboara joaten naiz bela egitera. Gainera, bertan ditudan zuhaitzak eta zelaia zaintzen ditut", esan digu.

Aisialdian egiten duen bigarren gauza da idaztea, eta horregatik, asko irakurtzen du. "Edozein paper, liburu eta aldizkari irakurtzen dut. Orain esku artean dudana da, Aramaioko bi neskek, bertako ipuin zaharrekin egindako transkripzioa. Bertan, duela 150 urteko ipuinak irakur daitezke". Bestalde, eleberriak irakurtzea eta idaztea gustatzen zaio: "Azken eleberria duela 12 urte idatzi nuen; ordutik beste era bateko liburuak idatzi ditut, besteak beste, biografiak. Epe motzera, eleberriak alde batera utziko ditut, beste liburu batzuk idazteko. Guztira, orain arte, 26 liburu idatzi ditut".

Astegunetan eta aste bukaeratan geratzen zaion denbora librea familiarekin egoteko aprobetxatzen du, batez ere emaztearekin: "Seme-alabak hazi dira, eta bakoitzak bere bizitza dauka. Hortaz, orain, emaztea eta biok ibiltzen gara elkarrekin"

"Euskaldun atipikoa naiz: elkarteetan afaldu eta txikitoak hartzea ez zaizkit gustatzen"

Astero joaten da Aramaiora bertako lagunei bisita egitera, baina ez zaio gustatzen elkarte gastronomikoetan bazkari edo afariak egitea: "Beti esan dut ez naizela euskaldun tipikoa, besteak beste, afariak egitea, bertsolaritza, txikitoak hartzea eta traineruak ez ditut gustuko. Batzuek pentsatuko dute arraro samarra naizela, baina...". Askorendako ohiturak direnak egiten eman ez duen denbora, idazteko erabili du: "Bestela ezinezkoa da 26 liburu idaztea".

Josemari Velez de Mendizabal Aramaion jaio zen, baina txikitatik Arrasaten bizi da. Dena den, Aramaiorekin hartu-emana hestua izaten jarraitzen du: "Ahal dela, astero joaten naiz bisitan, edo bestela, Arrasatetik Gasteizerako bidea egiten dudanean Aramaiotik pasatzen naiz. Herria txikia da, baina maite dut". Aramaioko lagunekin ere aldika-aldika elkartzen da bertan.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net-en

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:
- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU.
GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).

PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)
MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 22 € (BEZ BARNE).
GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 30 € (BEZ BARNE).
OHARRA: BI MODULU BAINO GEHIAGO JARTZEKO DEITU 943 25 05 05 TELEFONORA.

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Sagasti auzoan 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela, bi balkoi eta trastelekua. Garajearekin. 687 11 07 21.

Arrasate. Otalora Lizentziadunan duplexa salgai. Bi logela, bi komun, egongela, sukaldea eta 20 metro koadroko terraza. 13 urteko eraikina. 696 79 43 89.

Aretxabaleta. 72 metro kuadroko etxebizitza erdialdean. 16 metro kuadroko garajearekin. Prezio interesgarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38.

Bergara. 75 metro koadro. Bigarren solairua. Hiru logela, trastelekua eta arropak esegitzekoa. Terraza eta barbakoa. Aire girotua. Bi aparkalekurekin. Eguzkitsua eta leku lasaian. Berritua eta egoera onean. 216.000 euro. 943 76 07 50.

Bergara. 80 metro koadro. Bi logela, bainugela, egongela eta sukaldea. Balkoi handia. Dena kanpoaldera. Berogailu eta igogailuarekin. 652 76 86 68.

Bergara. Basalgo auzoan baserria salgai, lursailekin. 610 73 65 40 edo 943 76 19 28.

Oñati. 105 metro koadroko duplexa salgai. Lau logela, sukaldea, egongela eta bi komun. 330.000 euro, negoziagarriak. 635 71 41 39.

Oñati. 68 metro koadroko etxebizitza salgai herri erdian. Bi logela, sukaldea eta komuna. Igogailuarekin. Terraza, garajea eta ganbara. Guztiz jantzia. 608 34 85 23.

Oñati. 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela eta trastelekua argipatioan. Igogailuarekin. Leku lasaian kokatua. 652 70 12 49.

Oñati. 75 metro koadroko etxebizitza salgai Moyua kalean. Hiru logela, ganbara, sukaldea, egongela eta komuna. Berritua. 228.384 euro. 655 90 97 72.

Oñati. Etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Hiru logela, sukaldea eta komuna. Guztiz eraberritua. 210.000 euro, negoziagarriak. 635 71 41 39.

Oñati. Sukaldea, hiru logela, bainugela eta egongela. Garaje itxia eta trastelekua. Guztiz berritua. 665 72 87 89 edo 657 72 25 70.

103. ERRENTAN EMAN

El Puerto de Santa Maria (Cadiz). Bi logelako apartamentu berria ematen da errentan udarako. Valdelagraman. 70 m². Bi terraza (bat handia). Hondartzako bigarren ilaran. 605 43 29 31.

Granadako Alpujarran natura ingurune paregabean zortzi lagunendako etxea errentan. Terraza handia ikuspegi ederraz. Prezio interesgarria. Argazkiak hemen: www.blogak.com/losmonteros. Harremanetarako: jasonemendizabal@euskalnet.net edo. 943 79 42 33.

Jaca. Apartamentua. Bi logela eta garajearekin. Urbanizazioa, bi igerilekurekin (nagusia eta umeentzat) eta bi tenis pistarekin. Inguruan umeendako jolastokia. 665 73 95 65.

Peñiscola (Castello). Lau edo sei pertsonarentzako moduko apartamentua errentan. Hondartzatik gertu. Igerilekuarekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

Torrevieja. Apartamentua errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik hur. Bi logela, terraza, solariuma, garaje itxia eta elkarteko igerilekua. Ekaina, uztaila eta abuztuan. 400 euro asteko. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Bikote arduratsuak etxebizitza hartuko luke errentan. 687 98 43 64.

Aretxabaleta. Bikote gazte batek etxebizitza txikia hartuko luke errentan 2008ko irailetik aurrera. 685 77 66 85.

Arrasate, Eskoriatza edo Aretxabaletan etxe txikia errentan hartuko luke neska batek. 635 12 87 82.

Arrasate. Etxebizitza behar da errentan Arrasaten irailetik aurrera, hiru lagunentzako. 665 73 12 05 edo 669 85 87 78.

Arrasate Bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke. 657 72 84 12.

Bergara. Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 686 37 76 79.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko luke familia batek. Lehenbailehen. 647 10 58 85.

Bergara. Etxebizitza hartuko genuke errentan familia batendako. 650 62 12 94 edo 685 70 76 25.

Bikote gaztea etxebizitza errentan hartzeko prest. Bergara, Antzuola, Soraluze edo Osintxun. 663 46 93 60 edo 660 47 58 58.

Debagoiena. Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke errentan. Presazkoa da. 617 88 20 93.

Donostia. Etxebizitza hartuko nuke errentan Donostian, abuztuko lehenengo eta azken asteetan. 677 98 54 91.

Kostaldea. Etxebizitza errentan hartuko nuke abuzturako Gipuzkoako edo Iparraldeko kostaldean. Marijo. 685 72 16 17.

105. ETXEAK OSATU

Aramaio. Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 699 28 99 06 edo 646 55 26 30.

Arrasate. Pertsona bat behar da egoera onean dagoen etxea osatzeko. 616 05 97 92.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko; 180 euro hilean + gastuak. 647 08 68 75 edo 943 79 80 26.

Debagoiena. Etxebizitza partekatuko nuke Bergaran edo Arrasaten. 662 08 22 03.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakumea behar da etxean garbiketa lanak egiteko. Egunean bi ordu. 649 66 49 85.

Leintz Gatzaga. Pertsona bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Autoa ezinbestekoa. 607 49 83 50.

ARETXABALETA

Aste bukaeretarako zerbitzaria behar da. 647 05 42 75

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Emakume esperientziaduna gertu umeak zaintzeko. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72.

Arrasate edo inguruan egur erdiz, osoz edota gauez nagusiak zaintzeko gertu nago. 676 59 53 17.

Arrasate. Astean zehar, ordu batzuk etxeak garbitzeko neska euskalduna prest. 690 19 82 79.

Arrasate. Emakume euskalduna edozein lan egiteko gertu. 659 82 75 18.

Arrasate. Neska gertu ekainean eta uztailean umeak zaintzeko. 669 95 05 97.

Arrasate. Pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea gertu. 943 08 12 80.

Bergara. Bikotea gertu goizez tabernak edo elkarteak garbitzeko. 650 62 12 94 edo 685 70 76 25.

Bergara. Emakume esperientziadunak adineko pertsonak zainduko lituzke. Orduka zein etxean bertan bizi izanda. 606 64 16 09.

Bergara. Emakumea gertu umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 664 74 82 97.

Bergara. Mutil gaztea tabernetan eta jatetxeetan lan egin edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. 685 42 72 80.

Bergara. Neska arduratsua udan lan egiteko gertu. Umeak zaindu edo eskola partikularrak emango lituzke. 628 92 34 28.

Debagoiena. 25 urteko mutil arduratsua lanerako gertu. Aparejadore titulua daukat. Tabernatan zein nagusiak zaintzen ere lan egingo nuke. Luis Alejandro Rodriguez. 943 71 60 97 edo 943 53 37 86.

Debagoiena. Emakume bat prest garbitasun lanak egiteko eta sukaldean laguntzaile moduan aritzeko. Pertsona nagusiak eta haurrak ere zainduko lituzke. 659 37 41 95.

Debagoiena. Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

Debagoiena. Emakume gaztea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest, baita etxeak edo lokalak garbitzeko. 646 56 80 22.

Debagoiena. Emakumea edozein lanetarako gertu. 14:00etatik 21:00etara bitartean. 638 89 98 60.

Debagoiena. Emakumea garbiketa lanak egiteko gertu. 600 89 89 03.

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 664 74 82 07.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitasun lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka edo bertan lo egiteko gertu nago. 679 13 74 19.

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Bertan lo egiteko bada, hobeto. Deitu telefono honetara: 688 68 06 96.

Debagoiena. Emakumea prest gaixorik dauden pertsona nagusiak zaintzeko edota garbitasun lanak egiteko. Ikasketak eta esperientzia. 943 76 53 43 edo 629 75 00 30.

Debagoiena. Garbiketa lanak egin edo umeak zein nagusiak zainduko nituzke. Zerbitzari ere lan egiteko prest nago. 646 56 80 22.

Debagoiena. Hamabost urteko esperientzia duen neska zerbitzari lanetarako gertu. 663 65 57 31.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu arratsaldeetan edo gauetan lan egiteko. Umeak eta nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egiten. Deitu telefono honetara: 619 92 40 86.

Debagoiena. Neska euskalduna gertu umeak zaindu edo garbitasun zein tabernatan lan egiteko. Astelehenetik ostiralera. 636 05 36 18.

Debagoiena. Neska gaztea lanerako prest. Esperientzia dut zerbitzari eta garbitzaile lanetan. Deitu telefono honetara: 650 59 93 91.

Debagoiena. Paperak dituen esperientziadun emakumea lan egiteko gertu. Pertsona nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin, plantxa egin, josi edo gauetan gaixoak zainduko lituzke. 686 52 15 98.

Debagoiena. Paperak dituen mutil gaztea eraikuntzan lan egiteko gertu. 696 48 42 50.

Debagoiena. Sukaldean eta zerbitzari lanetan izan ezik, beste edozein lanetarako gertu. 14:00etatik 21:00etara bitartean. 618 82 02 41.

Hortz protesigilea gertu Debagoienean lan egiteko. Deitu telefono honetara: 635 74 34 55.

Neska gertu umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 661 06 07 23.

Sukalde laguntzaile lanak egiteko gertu tituludun emakumea. Maitegatik galdetu. 696 88 93 73.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. First titulua duen ingeles irakaslea behar dut. 943 76 40 54.

Debagoiena. Inteligentzia artifizialeko eskola partikularrak hartuko nituzke udan. 652 70 49 10.

Debagoiena. Pertsona bat behar da eskolak emateko. DBHko hirugarren maila. Kurtso bukaera arte eta baita datorren ikasturterako ere. 652 76 21 63.

502. EMAN

Eskoriatza. Unibertsitateko ikasleak eskola partikularrak (DBH eta LH) ematen ditu, uztailera arte (barne). Deitu telefono honetara: 600 84 12 97.

Oñati. Urte askotako esperientziadun irakasleak eskola partikularrak ematen ditu. Kurtso osoan eta udan. Deitu telefono honetara: 943 78 28 43.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Autokarabana. Sea Dinghy 2, 2.8 JTDI. 2002koa. 125 ZP, aire girotua, toldoa, bizikletak eramatekoa (3), literak. Sei bidaiarirentzat. IAT 2008ko apirilean. Bateria eta gurpil berriak. 92.000 km. 24.000 euro. 605 70 45 50.

BMW R 850 R motorra salgai. Hiru maletarekin, ABS, pantaila eta esku babesleak. 44.000 km. 6.000 euro. 688 62 00 04.

Karabana salgai. Roller Aloha 410 D. 3.000 euro, negoziagarriak. 943 78 16 88.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Basurdeak salgai Orozkon. 200 euro. 678 72 75 72.

Pointer arrazako txakurrak salgai. Lau hilabetekoak. Deitu telefono honetara: 615 73 58 38.

Setter arrazako txakurkumea salgai. Jaio berria. Ekain erdialdean emateko. Deitu telefono honetara: 635 20 18 56.

703. EMAN

Katakumeak oparitzen ditut. 943 78 05 13.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Autorako bozgorailuak salgai. 50 euro. 617 13 17 51.

Basalurra salgai Osintxu, Urkulu, Bolibar eta Antzuolan. 678 72 75 72.

Baxu elektrikoa salgai. ESP LTD TA 600Tom Araya. Beltza. Ia berria. Funda eta guzti. 650 euro. Jon. Deitu telefono honetara: 609 41 78 97.

Bikientzako motxila salgai. Weego Twin modeloa. Oso ondo dago. Lehen egunetik 6 hilabete bete dituzten artean ibiltzekoa. Edozein lekutan lasai asko ibiltzeko. Deitu telefono honetara: 619 92 91 18.

Brain Trainning berria salgai. Erabili barik dago. 617 13 17 51.

Errepideko bizikleta salgai. Egoera onean eta oso merke. 120 euro. Iñigo. 656 78 17 28.

Errepideko bizikleta salgai. Gutxi erabilia. Emakume edo gaztetxoentzat egokia (tamainaz ertaina). Deitu telefono honetara: 635 71 80 28.

Eskusoinu handia salgai. Tekladuna. Oso egoera onean. Kutxa barne. Prezio onean. Aukera ona euskal kulturara hurbiltzeko. 658 10 29 35.

Garajeko atea salgai. Erabili gabe. Prezio bikainean. Neurriak: 3,16x3 metro. Gaineko finkoa: 0,50 metro. Automatismoa jartzeko prest. Puertas Nueva Castilla etxekoa. 605 75 96 11.

Ilerako plantxak. Ile apaindegian erositako Gamma Profesional ilerako plantxak salgai. Gutxi erabilita. Deitu telefono honetara: 645 72 58 41.

Karabina automatikoa salgai. 22 kalibrea. Ia berria. Deitu telefono honetara: 943 76 56 94.

Karro-denda salgai. Alpen Kreuzer. Inertziadun balaztak, auto-en gurpilak. Bi logela bikoitz, jantokia 4-6 pertsonarentzako, sukaldea, hozkailua... Egoera onean, beti garajean gordeta. 1.100 euro. Deitu telefono honetara: 615 72 47 43.

Karro-denda salgai. Bi logela bikoitz, jantokia 4-6 pertsonarentzako, sukaldea, hozkailua... Egoera onean, beti garajean gordeta. Prezioa: 1.200 euro, negoziagarriak. Deitu telefono honetara: 615 72 47 43.

MP4a salgai. Oso gutxi erabilia. Deitu telefono honetara: 945 44 52 96.

Mahaiak eta aulkiak. Bergaran, zortzi mahai, aluminiozko 42 aulki eta publizitaterik gabeko eguzkitako bi salgai. Prezioa adosteko aukera. Deitu telefono honetara: 650 80 80 39.

Orbea Arin bizikleta salgai. 2005ekoa. Euskaltel-Euskadi taldekoaren erreplika. Dura-Ace taldearekin. 54 neurrikoa. 1.700 euro. Deitu telefono honetara: 656 76 89 44.

Samsung telebista salgai. 29 hazbetekoa. Bost hilabete ditu. Oso egoera onean. Deitu telefono honetara: 618 17 30 87.

802. EROSI

Sofak salgai. Hiru plazadun bat eta plaza bakarreko bi. Larruzkoak. Egoera oso onean. 1.100 euro. Deitu telefono honetara: 647 97 82 73 edo 620 86 87 50.

Ume-bizikleta. 4 urteko ume batendako bizikleta erosiko nuke, bi errubera gainean ikasteko egokia dena. Deitu telefono honetara: 665 71 39 61 edo 607 11 31 46.

806. GALDU

Betaurrekoak galdu nituen Kimetz taberna eta Maalako okindegi artean, maiatzaren 4an. Graduatuak dira. Deitu ezazu telefono honetara: 943 79 36 83.

Betaurrekoak. Graduatutako eguzkitako betaurrekoak galdu nituen Arrasaten maiatzaren 18 inguruan. Funda berde baten barruan zeuden. Deitu telefono honetara: 943 79 62 28.

Jaka bakeroa duela bi zapatu Bergarako Ipintza ikastetxeko patioan ahaztuta utzi genuen. Neurria: 8 urteko umeendakoa. Bospasei txaparekin. Deitu telefono honetara: 610 82 46 58.

807. AURKITU

Giltza. Citroen markako autoaren giltza bat aurkitu da Bergarako Zubiaurre kalean. Giltzaren jabea Martoko kaleko Mirari jantzi dendara joan daiteke hura hartzera. Deitu telefono honetara: 635 25 54 44.

Zapatak. Txarolezko zapatatxo bat agertu da INEMeko bulegoan. Maiatzaren 8an galdu zen. Pasatu INEMetik. Deitu telefono honetara: 943 79 71 45.

9/ HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Donostiako Aizkorri 84, 2.B etxebizitzaren jabearen bila nabil. Xabier. Deitu telefono honetara: 609 51 93 67.

ETXE AGENTZIEN ATALA

Jar ezazu hemen zure publizitatea
943 25 05 05 publi@goiena.com

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
• Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
• Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
• Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
• Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
• Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
• Ibargarai 74 m². Ondo. Garajea aukeran.
• San Juan. Bifamiliarra. Prezio oso ona.
• Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
• Matxiategi 61 m². Prezio ona. Eguzkitsua.
• Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
• Barrenkale 82 m². Berritua.
• Zubieta 75 m². Txokoarekin. Oso ondo.
• Simon Arrieta 80m². Prezio ona.
• Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
• Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
• San Pedro 65 m². Ganbararekin.
• Artekale 62 m². Berritua.
• Fraiskozuri 102 m². Bi balkoi.
• Ibargarai 106 m². Duplexa.
• **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedro eta Zubiaurren.**
• **San Lorentzon etxe berriak**

Arrasate:
• Erdiko kalea 113 m². Balkoiarekin. Ondo.
• Zarugalde 90 m². Balkoiarekin. Eguzkitsua.

Antzuola:
• Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi. Etxe onak.
• Etxe berriak 178 m². Duplexak eta adosatuak.

Eskoriatza:
• Baserria. Bifamiliarra. Berria.

Oñati:
• Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortua.
• Lezesarri. 75 m². Eguzkitsua. Erdi berritua.

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
• Artekale, 89 m², ondo.
• Arrizuri, 97 m², garajearekin.
• Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
• Ibargarai, 80 m², oso ondo.
• Artekale, 70 m², oso ondo.
• Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
• Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
• Matxiategi, 65 m², ondo.
• Aranerreka, 87 m², oso ondo.
• Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
• Sanantonabat, 70 m², oso ondo.
• San Lorentzo, 81 m², eraikuntza berria.
• Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
• San Pedro, 88 m², ondo.
• Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
• Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
• Urdangarin pasealekua, 132 m², berritzeko.
• Irizar Pasealekua 89 m², ia berria.
• Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
• Simon Arrieta 80 m², berritua, oso ondo.
• Matxiategi, 73 m², berritzeko.
• Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
• Zurradero, 81 m², oso ondo.
• Masterreka, 89 m², oso ondo eta garajea.
• Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
• Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
• **Etxebizitza berrien erainkuntza Madura, Masterreka, Zubiaurre eta Bidekurutzetan.**

SORALUZE
• Baltegieta, 83 m², berria.
• Rekalde, 100 m², oso ondo.

ANTZUOLA
• Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
• Antigua 55 m², erdi berritua.

ELGETA
• San Roke, 75 m², ia berria.

astea GOITBn

Astelehena, 2

> Aretxabaletako ur handiak erreportajean 21:47

Joan den domekan Aretxabaletan kale azpitik pasatzen den errekako zikinen ondorioz izan ziren uholdeak jasoko dituzte erreportajean.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea-Ttipi TTapa.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Ilunpean.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Berbaire.
16:15 Berbaire.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazkiak.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ikusten.
18:15 Teknopolis.
18:45 Berriak.
19:15 Animalia.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunako.
20:45 Berriak.
21:15 Harmaillatik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Erreportajea.
22:15 Kirolari.
22:45 Berriak.
23:15 Harmaillatik.
22:45 Gaurkoak.
23:30 28 Klipa.
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 3

> Gerra garaia eta ostea euskaldun nagusien eskutik 22:15

Gure nagusiek Espainiako gerra garaian eta ondorengo urteetan gertatutakoak gogoratuko dituzte *Euskaldunak Hizketan* saioan.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Horry.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea.
14:15 Harmaillatik.
14:45 Berriak.
15:15 Animalia.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Kirolari.
16:15 Eltze beroa
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 28 Klipa .
18:15 Musikantoi.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari
20:45 Berriak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire
22:15 Euskaldunok hizketan.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusmira.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Erreportajea.
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 4

> Pake Lekuko aste kulturala 'Zaharrak berri'-n 21:47

Oñatiko erretiratuen elkarte Pake Lekun aste kulturala ospatu dute joan den astean. Hori jasoko du Oihana Elortzak *Zaharrak berri* saioan.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Kantari.
14:15 Eltze berioa.
14:45 Berriak.
15:15 Berbaire.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Euskaldunok hizketan.
16:15 Teknopolis.
16:45 Berriak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Animalia.
18:15 Harmailatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Berriak.
20:15 Zaharrak berri.
20:45 Berriak.
21:15 Euskal artzainak.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Euskal artzainak.
22:15 ur eta lur.
22:45 Berriak.
23:15 Teknopolis.
23:45 Gaurkoak.
23.47 Jazzmina.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 5

> Musikaren gaineko kontuak 'Musikantoi' saioan 22:15

Musika zaleok, eguenero duzue hitzordua Goiena Telebistan *Musikantoi* saioarekin. Asteotan ere musika eskainza zabala izango duzue.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Zaharrak berri.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Marazki bizidunak.
14:15 Euskal artzainak.
14:45 Berriak.
15:15 Euskaldunak hizketan.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Ur eta lur.
16:17 Eltze beroa.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 Kirolari.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazkiak.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Erreportajea.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire.
22:15 Musikantoi.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusten.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Teknopolis.
00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 6

> Josemari Velez de Mendizabal 'Ilunpean' saioan 22:15

Eusko ikaskuntzako gerentea eta EuskoSareko komiteko kidea da Jose Mari Velez de Mendizabal. Egubakoitzean izango da *Ilunpean* saioan.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Ur eta lur.
14:15 Euskaldunak hizketan.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Berbaire.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Musikantoi.
16:15 Ur eta lur.
16:45 Albisteak.
17:15 Marrazkiak.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 erreportajea.
18:45 Albisteak.
19:15 Ikusmira .
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Berriak.
21:15 Erreportajea.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Animaliak.
22:15 Ilunpean.
22:45 Berriak.
23:15 Musikantoi.
23:45 Gaurkoak.
23:30 28 Klip.
00:15 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

> Mundumirako kamisetak zozketan Arraste Irratian 10:30

Datorren asteburuan Bergaran egingo den Munduko kulturen topaketa den Mundumirako kamisetak zozketatuko dituzte. Horretaz gain, Euskal Herria aldizkariko harpidetzak ere zozketatuko dituzte.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskutik; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri*saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*)
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

gertutik

Amaia Txintxurreta
Aurkezlea

"Kantua eta telebista uztartzeko aukera eman dit Kantarik"

MIREN ARREGI > BERGARA

Ikus-Entzunezko Komunikazioko ikasketak egiten dihardu Amaia Txintxurreta Eskoriatzako HUHEZI fakultatean. 11 urte zituenerako telebistan ateratzen hasi zen, *Betizu* karaoke saioak eskaini zion aukera aprobetxatuz. Kantua da bere pasiorik handienetariko bat eta zortea izan du, telebista eta musika, biak uztartu ahal izan dituelako urtetan zehar. Ez du denbora gehiegi beretzat, izan ere, berbena talde bateko abeslaria ere bada.

Txiki-txikitatik diharduzu telebista eta musika munduan.

11 urte nituenean, *Betizu* karaoke saiora aurkeztu eta orduan ikusi nuen benetan gustuko nuela bai telebista eta baita abestea ere. Orduan aurkeztu izan ez banintz, nekez egongo nintzateke Ikus-Entzunezko Komunikazioa ikasten eta musika munduan horren buru belarri.

Horrek gainera, hainbat ate zabaldu zizkizun, ez da hala?

Bai, horren ondoren, *BT2.0*-n, ETBko kantu akademian hasi nintzen. Egubakoitzetan eta zapatutan grabatzen genituen aste guztiko saioak, eta bertan, kantu, dantza eta interpretazio klaseak hartu genituen. Horren ondoren ere, akademiako ikasleok, *Show BT* musikala egin genuen. Izugarria izan zen.

Telebista beraz, aspalditik ezagutzen duzu. GOITBn ere aritu izan zara *Jaiak* saioan eta baita *Kantari*-n ere...

Oso momentu onak bizi izan ditut telebistan, niretzat oso esperientzia polita izan da. Askotan kanpotik guztia oso polita ikusten da baina barrutik gauzak beste modu batekoak direla ohartzen zara. Niri ez zait hori gertatu, eta benetan ongi pasatu izan dut telebistan.

***Kantari* aukera ona izan zen zuretzat?**

Oso ona. Nire bi pasio uztartzeko aukera eskaini dit. Gainera, aurrez ere halako karaoketan parte hartu izan nuenez, kantarik halako saioak beste ikuspuntu batetik ezagutzeko aukera eman dit; hain zuzen ere, lehen kantari aritzen nintzen eta orain aurkezle lanak egitea egokitu zait. Oraindik ere umeek kalean ezagutzeak gustu handia ematen dit.

asteko hitzorduak

Kontzertua

OÑATI
> Malawiko Body, Mind & Soul taldearen kontzertua eta eurekin berriketaldia

Malawiko Body, Mind & Soul taldeak Topalekuko gazteekin berriketaldia izango du etzi, 18:30ean; eta eguenean, hilak 5, kontzertua egingo du, 20:00etan. Euren herriko musika eta kultura zabaltzen lan egiten dute.

Erakusketa

BERGARA
> Venezuelako Saprendeh integrazio elkartearen gaineko argazkiak

Saprendeh-Venezuela elkarteak gutxituen integrazioaren alde jarduten du. Aprendeh-Euskadi elkartearen laguntzarekin, argazki erakusketa zabalduko dute Espoloiko Hamaika tabernan, hilaren 5ean, 19:00etan.

Hitzaldia

ANTZUOLA
> 'Euskal Herria bizikletaz: nire lehen bidaia', Bringas eta Lizasoren eskutik

Mikel Bringas eta Rosa Lizaso donostiarrek bizikletaz bidaiatu zuten Euskal Herrian barrena, eta horren inguruko liburua atera dute. Horren berri emango dute bihar, Olaran etxean, 19:00etan, Mundumirak antolatuta.

kuxkuxeroa

Mireia Bikuña

Errekaldeko jaiak, futbola eta euria

Auzoko jaiak ospatu ditugu aste bukaeran Errekalden, eta antolatzaileek iragarritako kontzertuak lagun eta auto asko bildu zituen. Han egon ziren, Goienako lankide, **Iker Barandiaran**, **Maider Arregi**, **Txomin Madina**, **Jon Berezibar** eta **Nerea Menor**, besteak beste. Autoak aparkatzea ere zaila izan zen egubakoitzean. Egia da, Errekalden aparkatzea zaila dela beti, baina egubakoitzekoa, ikaragarria izan zen!

Zapatu goizean, lanera nentorrela, Aloña futbol saileko presidente **Jabi Azpiazurekin** egin nuen topo, eta preferente mailako jokalariek Arantzazura bizikletaz egin behar zuten igoerara gonbidatu ninduen, baina berandu zen! Dena den Jabi, datorren urtean garaiz esan, eta **Aran** eta biok igoko gara (bizikletan ezin badugu, zurekin joango gara autoan). Igoeran, azkarrena **Jon Igartua** izan zen.

Euriaren gaineko datuak jakin gura dituenak Luis Mari Agirrerengana jo beharko du

Aste bukaerako protagonista nagusiena, duda barik, eguraldia izan da, edo hobeto esateko, euria. Baina, zenbat euri bota du? Datua jakin gura duenak, Bergarako Narbaiza Bolu baserriko **Luis Mari Agirrerengana** jo beharko du, edo bestela, **Pello Zabalari** galdetu. Euskalmeteko iragarpenek diote datozen egunetan eguraldiak antzera jarraituko duela. Ai, ene!

zorion agurrak

ARETXABALETA
Luken Okaranza Iglesias
Maiatzaren 21ean. Ongi etorri mundura, Luken. Familiaren partetik.

BERGARA
Idoia Martinez Altube
Maiatzaren 21ean, Hiru urte. Zorionak etxeko guztien partetik.

OÑATI
Leire Nuñez
Maiatzaren 23an. Zorionak Lele! 17 urtetzaar! Ondo ondo pasau zure eguna, mereziu dosu ta! Kuadrillakuon partetik.

ARETXABALETA
Gaizka Lete Atxaga
Maiatzaren 26an 5 urte. Zorionak etxeko denen partetik eta muxu haundi bat

ARETXABALETA
Ainhize Ibabe Sillero
Maiatzaren 27an, 4 urte. Zorionak etxekoen partetik, bereziki Arkaitz.

OÑATI
Trini Lazkanoiturburu
Maiatzaren 28an. ZORIONAK TIA!!!! Ondo ondo pasau eguna eta urtiak aurrera fanatik be betiko moduko gazte jarraittu deizula Oñatiko familixian partetik.

OÑATI
Miren Zubizarreta
Maiatzaren 29an. Zorionak eta urte askotarako guapa!! 21 patxo haundi Atxabaltako familixa danan partez!! Ondo pasau eguna!

OÑATI
Jon Altube Orueta
Maiatzaren 29an, 28 urte. Zorionak eta muxu pottolo pottolo ugari.Earki ospauko deu eune Pituki!

OÑATI
Joxan Larrea
Maiatzaren 30ean. Kuadrillakuen partetik, zorionak, Joxan ta urte askotarako! "30ian 30urte" A ze kointzidentzia! (13. aldiz, bakarrik...) Ondo pasau eguna eta zelebraukoxu!

OÑATI
Eugenio Korkostegui eta Ana Kortabarria
Maiatzaren 30ean urtebetetzea. Zorionak etxekoen partez ta urte askotarako.

OÑATI
Ana Kortabarria
Maiatzaren 30ean. Zorionak eta urte askotarako. Espero dugu ondo pasa duzula oporretan eta orain LANERA. Errekaldeko familiaren partetik.

OÑATI
Maddalen Etxeberria Gereka
Maiatzaren 31n. Urte barri honekin batera, poztasuna, osasuna, maittasuna, askatasuna desioz: Zeure lagunen partetik, zorionak! Jarraittu halako jator eta martxoxa! Alkarrekin bikain pasauku Errekaldeko jaixetan, zeuk merezi dozun mouan ospatuz; dudarik ez izan!

OÑATI
Asier Zubiagirre
Maiatzaren 20an, 4 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partez. Egun ederra pasa dezazula.

ARRASATE
Maite Berezibar
Maiatzaren 20an. Zorionak guapixima! Egun ona pasau deizula eta ia noiz ospatzen doun! Lagun izkutua ezta zutaz ahaztu!

ARRASATE
Luis Mari Ibarrondo
Ekainaren 1ean. Zorionak zure lagunen partetik.

ESKORIATZA
Mara Etxabe Isasisamendi
Maiatzaren 31m. Zorionak Mara. 5 urteko neskatzarra! Zorionak eta muxu haundi bat etxeko danen partetik.

OÑATI
Irati Ugarte Imaz
Ekainaren 1ean. Zorionak guapa! 27 urte,juju...zu be goruntz zoiaz Ondo pasau zure eguna eta Muxu haundi bat.



ESKORIATZA
Enara Urrutia
Ekainaren 2an. Zorionak Enara! Jada urte bete, zu bai zu pieza!! patxo handi bat danen partetik. Tiooooooo!

ARAMAIO
Leire Arrizabalaga
Ekainaren 3an, 5 urte. Zorionak prexioxa! Patxo handi bat etxeko guztion partetik. Ondo pasa!



ARRASATE
Iraitz Etxagibel Ruidiaz
Ekainaren 3an, 4 urte zoragarri gure artean. Zorionak ta muxu bat senitarte guztien partetik



OÑATI
Ane Monzon
Ekainaren 6an. Zorionak Anetxu! Ondo ondo pasau zure urtebetetze egunian... ta opari asko jasoko dozulakuan... baserriko zure familixian partetik mila patxo eder, zuk merezi dozu ta! Paaaaa!

ARRASATE
Alaitz Bergaretxe
Ekainaren 6an, 2 urte. Zorionak eta patxo haundi bat familiakoen partetik!

ARETXABALETA
Irati Garcia Aranzadi
Ekainaren 7an, 6 urte. Gure etxeko printzesarentzat zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
Arrasate Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05 / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.
Bergara Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.
Oñati Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65 **Aretxabaleta:** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.
Aramaio: Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
Elgeta: Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
Antzuola: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 100 euro. Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 90 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120 euro**. Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 110 euro.
Goienkaria: astero, 50.000 irakurle Gipuzkoan (CIES).

MEZA

Miren Lizarralde Sudupe

Oñatin hil zen 2008eko maiatzaren 31n, 44 urte zituela.

Haren arimaren aldeko hileta elizkizuna gaur, astelehena, ekainak 2, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko lankideen izenean.

URTEURRENA

Pilar Zabala Frias

Emiliano Echavarriren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 8an, 13:00etan Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Erretiratuen eguna Arrasaten. Zapatuan, 952 lagunek ospatu zuten Arrasaten, erretiratuen eguna. 12:30ean San Juan parrokian meza entzun ondoren, Musakolako kiroldegian bazkaldu zuten. Ondoren, dantzaldia izan zuten, eta hainbat saltokik emandako opariak zozkatu zituzten. Gainera, aitaita-amama nagusienak omendu zituzten; hain zuzen, Marina Sanchez (100 urte), eta Ladislao Ginaldo (97 urte).

Afaria eta erromeria Seminarioan. Zapatuan egin zuten *Maiatzeko Erromeriak* egitarauko azken saioa. Eguraldi txarrari aurre eginez, afaria eta erromeriak Seminarioan egin behar izan zituzten. Festa, 18:30ean hasi zen trikitilarien kalejirarekin. Ondoren, ordu erdiko erromeria egin zuten, eta afaltzera joan ziren. Hain zuzen, pasta entsalada, oilasko izterra patata eta piper gorriekin eta izozkia jan zuten bertaratu zirenek.

Bingo solidarioa. Egubakoitzean, Nubi eta Iesbaa elkartasun taldeek antolatua, Sahararen aldeko bingo solidarioa egin zuten, Arrasateko Iamai kafetegian. Txartel bakoitza euro baten truke saldu zuten, eta hainbat denda eta enpresek emandako opari dotoreak banatu zituzten: belardendako produktuak, alkandorak, ardo saskia, txigorgailua eta kafemakina, zapiak eta nordiko zorroak, besteak beste.

Erretirauen asteari bukaera emateko bazkaria Oñatin. Oñatiko Pake Leku elkarteak antolatuta, erretiratuen astea bukatzeko bazkaria egin zuten atzo. 12:30ean meza entzun ondoren, German Gonzalez (95 urte) eta Basilisa Madina (94 urte) omendu zituzten. Udal Musika Bandak eta Oñatz taldeko dantzariek parte hartu zuten omenaldian.

Irteera egin zuten Debara. Aretxabaletako 80 bat guraso eta ume egon ziren zapatuan Lasturren (Deba). Goizean mendi buelta egin zuten, eta eguerdian errotak eta Goikola baserriko gaztandegia ikusi zituzten.Bazkalostean Lasturko plazan zezentxoen ikuskizuna jarraitu zuten gustura.

jaiotakoak

Maider Tuquerres Arias
Bergara > 2,096 kilo. Maiatzaren 28an. Gurasoak: Cladis (Ekuador) eta Humberto (Ekuador). Argazkian, Maider amarekin, lo.

Oier Elortza Elizalde
Bergara > 3,470 kilo. Maiatzaren 29an. Gurasoak: Saioa (Bergara) eta Aitor (Bergara). Argazkian, Oier jaioberria, lo.

Maia Erostarbe Beristain
Elgeta > 3,440 kilo. Maiatzaren 30ean. Gurasoak: Leire (Elgeta) eta Oxel (Elgeta). Argazkian, Maia jaioberria, lo.

June Garaikoetxea Iturbe
Antzuola > 3,600 kilo. Maiatzaren 29an. Gurasoak: Eli (Antzuola) eta Ibon (Billabona). Argazkian, June jaioberria, lo.

Ekain Salterain Zamaioa
Elorrio > 3,400 kilo. Maiatzaren 29an. Gurasoak: Raquel (Elorrio) eta Asier (Elorrio). Argazkian, Ekain jaioberria, lo.

Aner Aranzadi Umerez
Oñati > 3,410 kilo. Maiatzaren 29an. Gurasoak: Saioa (Oñati) eta Jose (Aretxabaleta). Argazkian, Aner jaioberria, lo.

Luken Okaranza Iglesias
Aretxabaleta > 3,090 kilo. Maiatzaren 21ean. Gurasoak: Olatz (Aretxabaleta) eta Mikel (Aretxabaleta). Argazkian, Luken jaioberria, lo.

Lur Artolazabal Martinez
Aretxabaleta > 3,280 kilo. Maiatzaren 24an. Gurasoak: Lore (Aretxabaleta) eta Aitor (Soraluze). Argazkian, Lur jaioberria, lo.



Lara Cabrejas Moreno
Bergara > 2,700 kilo. Maiatzaren 28an. Gurasoak: Valentina (Bergara) eta Alfonso (Bergara). Argazkian, Lara jaioberria, aitarekin.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2008-06-02

Mikel Kazalis > Musikaria

"Norberak sentitzen duena egin behar du"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Mikel Kazalis zarauztarra musikan murgilduta dabil beti. Negu Gorriak, 2 Kate, Estigia, Kuraia eta Anestesia taldeetako kidea izan da, eta grabazio estudioa ere badauka. Egubakoitzean Oñatin izan zen Anestesia taldearekin.

Lau anaia-arrebetatik zeu zara mutil bakarra. Zer ikasi duzu arrebekin?

Emakumeen artean gauza asko ikasten da, bizitzako detaile ugari, bai etxekoekin eta baita kanpokoekin ere. Emetasunaren mireslea naiz.

12 urterekin ilea luze utzi zenuen errebeldia ekintza moduan. Gaur egun zer dira zuretzat tximak?

Neguan burua berotzeko tresna onak dira. Horrez gain, norbera eta ingurua irudi batera ohitu egiten da. Zerikusia izango du, baita ere, agertokian egoteko aspalditik dudan ohiturak.

Asko erreparatzen diezu kalean jantzita ikusten dituzun oinetakoei?

(Barre). Inoiz ez dut zaletasun handirik izan. Ikasketekin arrakasta txikia izan nuelako familiako zapata-dendara bidali ninduten lanera, baina musikan buru-belarri sartu ahala utzi behar izan nuen.

Negu Gorriakekin asko bidaiatu zenuen. Zarautz da munduan bizitzeko leku onena?

Asko bidaiatu genuen, baina batez ere kontzertu aretoak eta lo egiteko lekuak ezagutu genituen. Hala ere, Euskal Herria leku zoragarria da, daukagun natura ondareagatik eta esaterako, gauez-eta kalean arrisku barik ibili zaitezkeelako.

Ibon semeak abilezia handia erakusten du musikan... Musikari izango balitz, zer aholku emango zenioke?

Irakasleak esaten du oso belarri ona daukala. Niri abestiak jotzeko eskatzen dit, eta berehala asmatzen du zer kantu den. Musikari izan gura badu, sentitzen duena egiteko esango nioke. Ez bakarrik musikari bati, edozeini esango nioke hori.

Egia da soinu teknikari lanetan lehenengo aldiz Arrasateko Shot! grabazio estudioan aritu zinela?

Bai, taldeak grabatzen hor hasi nintzen. 2 Kate taldea neukanean Bad F-Linekoekin harremana egin genuen, eta behin Iñaki Bengoak proba egiteko aukera eman zidan. Han aritu nintzen sasoi batez, eta gero Garateko estudio txikian lan egin nuen. Horren ostean, orain dela 4 bat urte, Fidelenea estudioa zabaldu nuen Zarautzen.

TEST-A

Herria: Zarautz. **Adina:** 39 urte. **Ikasketak:** Oinarrizko ikasketak, solfeoa, pianoa... **Zaletasunak:** Musika, eta noizean behin parrandaren bat. **Bete duzun amets bat?** Musikan jardutea. Instrumentu bat jotzea ametsa zen, eta disko bat grabatzea sinestezina. **Eta betetzeko daukazun amets bat?** Honetan luzaroan jarraitzea Motörheadeko Lemmyren moduan. **Nora egingo zenuke bidaia bat?** Frantziako Kazalis herrira, adibidez.

Mikel Kazalis egubakoitzean Oñatin, kontzertua hasi aurretik. JOSETXO ARANTZABAL

ai, ene!

Paperezko xerra

Itxura ederra du xerrak, baina ez du jateko balio, paperezkoa da-eta! Norbaiti txantxaren bat egiteko aproposa, duda barik. Gainera, paperezko plater, goarnizioa eta mahai-tresnak ere badaude beheko helbidean, besteak beste.

http://www.nopuedocreer.com

biharamuna

Marijo Deogracias

Apusturik egin nahi?

Ibarretxe, herritarrek ez badute babesten, etxera joango dela; Urkulluk, bitartean, ezkutalekua topatu duela dirudi. Insumisoa atera zaio lehendakaria eta abil ez badabiltza, Patxi Lopezek Ajuria Enea uste baino lehenago okupatuko du.

Madrazori ere kritikoak oldartu zaizkio, baina komunistei esker erdi konpondu du kontua. Komunistak, nonbait, giltza. Nire hurrengo Biharamona orduko ezagutuko dugu galdeketa egiteko lege proiektuak aldeko zenbat boto batzen dituen. Bitartean, eta Wayoming Handiak egunero *El Intermedio* telebista saioan esaten duen moduan, "lo que España vota va a misa" eta baliteke ekainaren 27an ere horrela izatea. Gogora orain Patxi Zabaletak esan ohi duena: "arerioak hornituko zaitu". Batek daki. Amagoia Ibanek esaterako, joan zan barikuan Berrian idatzi zuenez, Bob Dylanen abesti ezaguna gogora ekarriz: "The answer, my Friend, is blowin' in the wind..."

Berri on bi: Txuma Murugarrenek blog berria sortu du. Atzo bertan gonbidapena jaso nuen: *http://txumamurugarren.com/*. Bestetik, Extremoduro musika taldearen lan berriko aurrerapena http://extremoduro.com/ helbidean entzungai.

eguraldia



MAXIMOA	MINIMOA
+18	+11

Zerua hodeitsu egongo da eta zaparradak botako ditu, sarriago goizean eta arratsaldean. Tenperatura egonkor mantenduko da.

www.euskalmet.net

iKER

SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR